



**Altsasun ilbeltzaren
15ean hasiko dira
edukiontzi marroiko
hondakin organikoak
biltzen / 8**

**1936ko historia
memoriarekin
hitzordua bihar
Olatzagutiko Kultur
Etxean / 11**

**Gaur hasiko dira
Lizarragako San
Klemente festak.
Igandean adinduak
omenduko dituzte / 10**

**Pello Garciak eta
Migel Ulaiarrek
Nafarroako Kirolaren
Zilarrezko Domina
jasoko dute / 16**

**Etxarriko historiari
buruzko Txiñerratxo
antzezlan gaur
mustuko dute kultur
etxean / 20**

**BADATUZ EGUBERRIAK,
BADATOR GEHIGARRIA.
EZ GALDU AUKERA!**

948 564 275
publi@guaixe.eus | publizitatea@guaixe.eus



Ferietako liskarragatik auzipetutako gazteen abokatuak Madrilen prentsaurrekoa eman zuten. UTZITAKOIA

"Prozesu zuzena izateko eskubidea urratu da"

Auzipetutako gazte altsasuarren abokatuak "berme guztiak" dituen epaiketarako aukera ez dute ikusten, haiek proposatutako lekuko eta ia proba guztiak atzera bota dituzte. Erabakiaren kontra idatzizko protesta aurkeztu dute, gero helegitea aurkezteko

ALTSASU

Espainiako Auzitegi Nazionalako Zigor Aretoko I. Sekzioak guztira 375 urteko zigor eskaerei aurre egiten dioten zortzi gazte altsasuar epaituko ditu. Haietako hiru behin-behineko espetxealdian daude. "Lesioak eta mehatxu terroristak" leporatzen zaizkie. Epaiaketak ez du datarik, baina bere tramitazioa aurrera

doa. Akusazioek eta defentsek euren frogak eta lekukoak aurkeztu zituzten. Defentsako abokatuak ia denak atzera bota ditu auzitegiak lastailaren 27an emandako auto baten bidez.

Altsasuko auzipetuen abokatuak Madrilan asteartean prentsaurrekoa eman zuten eta bi gauza salatu zituzten. Lehenik, epaitegiaren jokabideak "urra-

tzen duela benetako tutoretza juridikorako, garantia guztiak edukiko dituen prozesurako, defentsarako eta defentsaren alde frogabide egokiak erabiltzeko eskubidea, Konstituzioaren 24. artikulua bermatzen duena, baita epaiketa zuzenerako eskubidea ere, Giza Eskubideen Europako Itunaren 6. artikulua jasotzen duena".

Eta, bestetik, "epaiketa egin behar duen epaitegiaren eginbideak gidatu behar dituen inpartzialtasunaren beharrezko itxura hausten duela, eta horrek eragina daukala Konstituzioaren 24.2 artikulua eta Giza Eskubideen Europako Itunaren 6. artikulua ezartzen duten garrantia guztiak izango dituen prozesu baterako eskubiderako garantiaren gainean". Lastailaren 27ko autoa ezin da errekurritu, eta defentsek prozesuaren une horretan egin dezaketen gauza bakarra egin dute: idatzizko protesta aurkezteko frogak ez onartzeko erabakiaren aurrean, bere garaian emanen den erabakiaren aurkako helegitea aurkezteari begira.

Fiskaltza eta akusazioei, bai

Abokatuak jakinarazi zuten, "autoak Fiskaltzak eta pertsonatu diren gainerako akusazioek eskatutako froga ia guztiak onartu ditu, hala lekukoenak nola adituenak eta dokumentalak". Kexu azaldu ziren abokatuak "akusatutako gazteen defentsarako ezinbestekoak, egokiak eta beharrezkoak diren frogak" atzera bota dituelako eta, ondorioz, "gazteak erabateko defentsa-gabezia murgildu" dituelako.

Defentsen esanetan, "gertakariaren kalifikazio juridikoa (terrorismoa), nola akusazioek planteatutako askatasun-gabetzeko zigorren proportziorik eza edo 3. Instrukzio Auzitegi Zentralaren sumarioaren ixte azkarregiak, ukatu zituenean defentsek eskatutako ikerketarako diligentzia guztiak, horiek denak prozedura abiatu zenetik akusatuek izan duten defentsa-gabezia egoeraren adibideak dira, zeina ahozko epaiketan ere gertatuko den".

Alde Hemendik

Izen hori duen mugimenduaren eta ETaren arteko balizko loturan oinarritu dira Fiskaltzaren eta akusazioen salaketak. Abokatuek nabarmendu zuten, "mugimendu hori 1976an hasi zen, akusatutako inor oraindik jaio ez zenean". Estatuko Segurtasun Indarren eta Armadaren presentziaren kontrako kanpaina horren eta joan den urteko ferietan gertatutakoaren arteko lotura egiteko akusazioek Guardia Civilaren "inteligentzia txosten" izan dute oinarri.

Abokatuek hori gezurtatzeko Hego Euskal Herriko segurtasun indarren irteera eskatu duten mugimenduetako hainbat lekukoren deklarazioa eskatu zuten. "Antzeko aldarrikapenak egin dituzten edo Ospa Eguna bezalako ekitaldiak antolatu dituztenendako hainbat auzitegi emandako absoluzio-epaiak ez dira aintzat hartu. Epai horietan adierazpen askatasunaren legezko erabileraren barruan kokatu zituzten". Defentsek gaineratu zuten, "Alde Hemendik mugimenduaren benetako jatorria, bere jaiotza eta eboluzioa ETatik aparte" azalduko lukeen aditu baten txosten historikoa ere ukatua izan da.

Atzera botatuko gehiago

Onartu ez zaizkien artean daude ustezko gertakariak jazo ziren tabernan bertan eta bere inguruan grabatutako bideoak, lokalaren argazkiak eta planoak,

"ALDEEN ARTEKO BERDINTASUN PRINTZIPIOA URRATU EGIN" DELA SALATU DUTE ABOKATUEK

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Eneida

Gaurko gaiak:

- Pakita Anduezarekin
- Mexikorekiko elkartasun jaialdiaz
- Altsasuko auzia
- Jose Luis Erdoziarekin

Txinerratz antzezlanaz

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

Google Mapsetik ateratako Altsasuko mapak eta akusatuetako batek gertakarien gauean bertan grabatutako bideoak. "Aretoaren arabera, defentsarenak izanik, ez dutelako nahikoa bermerik". Kexu dira abokatuak: "akusazioei Internetetik ateratako eta haiek hartutako argazkiak onartu zaizkie, batzuk 2016ko lastailaren 15ekoak baino beranduagoak, Aretoak haien bermea zalantzan jarri gabe".

Defentsek salatzaileen irratietako elkarrizketak entzuteko froga gisa aurkeztu zituzten, "haietan sumarioko deklarazioetan azaldutakoarekiko zehaztapen kontrajarriak ematen baitzituzten" Baina ez da onartua izan. Ezta izapidetze aldian identifikazio errondaren mekanika zalantzan jartzen duen adituen txostena ere; "ustezko bikimiek espetxean zeuden gazteak identifikatu zituzten saioa Soto del Real eta Alcala-Mecoko espetxeetatik eramandako adin, nazionalitate eta etnia desberdineko pertsonekin egin ziren, haietako inor ez zen Altsasukoa".

Ez onartutako proposamenen artean daude "lekuko askoren deklarazioa, horien artean daudelarik gertakariak izan zirenean akusatutako gazteekin zeuden pertsonenak, tabernaren barrualdean eta kanpoaldean gertatutako guztia berretsi lezaketenak. Aldiz, akusazioen lekuko guztiak onartu dituzte".



Makina bat jende elkartu zen espetxeratzeen urteurrena salatzeko.

"Guztiak libre izan arte lanean" segituko dute

Altsasukoak Aske plataformak azken urteko ibilbidearen balorazioa egitearekin batera manifestazio berri baterako deialdia egin du. Hilaren 26an egingen den manifestazioan parte hartzera deitu dute. lortuak zabalgunetik abiatuko da, 13:00etan.

ALTSASU
Festa egun batean, goizaldeko bostetan gertatutakoari terro-

rismo akusazioa eta 375 urteko espetxe zigor eskaera. Altsasuko auziaren laburpen hori

egin dute plataformatik. Laburpen hori egiteko "estatuko botere guztiak erabili" zituz-

tela nabarmendu du gero. "Muntaia honen ondorio larriena, momentuz, Ohian, Jokin eta Adur urte bat espetxean pasa dutela, Altsasuko bizitza aldatuz".

Kexu azaldu dira Altsasu: "herri zatitu, biolento, intransigente, elkarbizitzarako zaila eta abar esan zuten. Hainbat politikok eta hedabidek eta estatu aparatuek elikatu zuten mezu horiek". Eta hala segitzen dutela nabarmendu dute plataformatik. "Guri, Altsasuari galdetu dezatela nork apurtu duen elkarbizitza!!! Esango diegu!!!"

Plataformatik nabarmendu dutenez, "urte bat daramagu gezurrei herri bezala erantzuten, lan egiten eta herritarren parte hartzea ikusten, eta leku eta jende askorengandik elkartasuna jasotzen". Behin eta berriro jasotzen ari diren isunetan, elkartasun hori eteteke errepresio ekonomikoa ikusi dute. "Lagunak gogoratzeagatik, etxean, Altsasun eta libre nahi" dituztela aldarrikatzen segituko dute plataformakoek.

"URTE BAT DARAMAGU GEZURREI HERRI BEZALA ERANTZUTEN, LAN EGITEN"

Kronologia

2016-10-15 Goizaldean Guardia Civilen, haien bikoteen eta gazteen arteko liiskarra izan zen.

2016-10-17 Atxilotutako bi gazteak Mari Paz Benito epailearen aurrean deklaratu zuten.

2016-10-18 Covitek Espainiako Auzitegi Nazionalen salaketa jarri zuen.

2016-10-22 Muntaia eta hedabide batzuen trataera salatzeko manifestazioa. Covitekoak hasieran.

2016-10-26 Bost gazte Iruñeko epailearen aurrean deklaratzera joan ziren. Ez zegoen.

2016-10-27 Guardia Civilaren txostenak ez du terrorismo zantzurik ikusten.

2016-10-28 Beste bi gazte Iruñean deklaratzeko saiatzen dira. Asmoa adieraziz agiria sinatu zuten.

2017-11-07 Falangeren mehatxu pintada Koxka tabernan.

2016-11-09 Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiaren inhibizioa, Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku.

Espainiako Auzitegi Nazionalen Carmen Lamela epaileak beretako eskatu zuen kasua.

2016-11-10 El Mundok altsasuarren izen abizenak argitaratu zituen, adin txikikoenak barne. Batzuek hala jakin zuten inputatuta zeudela.

2016-11-14 10 gazte altsasuar atxilotu zituzten Espainiako Auzitegi Nazionalaren agindurik gabe.

Atxiloteten kontrako manifestazio jendetsua.

2016-11-15 Nafarroako Gobernuak atxilotetak ez zirela beharrezkoak adierazi zuen.

Atxilotetak salatzeko manifestazioa.

2016-11-16 Altsasuko Udalak azaroaren 26rako manifestazioa deitu zuen.

Madriren deklaratu ondoren beste gazte bat kartzelara. Zazpi guztira. FIES erregimena ezarri zieten.

2016-11-19 Manifestaziora deitzeko prentsaurreko handia.

2016-11-21 Nafarroako Parlamentuak atxilotetak errefusatu zituen.

2016-11-26 20.000 bat pertsona elkartu ziren manifestazioan.

2016-12-02 Auzipetuen gurasoak Nafarroako Parlamentuan azalpenak eman zituzten.

2016-12-14 Hilabete preso. Salatzeko Burunda frontoia bete zuten.

2016-12-20 Lau gazte aske utzi zituzten.

Auzipetuen gurasoak Espainiako Kongresuan hainbat taldeetako ordezkariekin bildu ziren.

Auzipetuen etxeetarako giza katea.

2016-11-21 Askatasuna eskatzeko ostiralero kontzentrazioak hasi zituzten.

2017-01-07 Atxiloteten ondorengo herri batzarrean parte hartzeagatik 10 isun iritsi ziren.

2017-01-08 Altsasukoen askatasuna eskatzeko kontzentrazioa Madriren.

2017-01-21 Elkartasun bazkariak Altsasuko elkarteetan.

2017-01-26 Herri asanbladak auziari buruzko maiatz arteko hitzaldi bira aurkeztu zuen.

2017-01-27 Manifestuaren Sakanako aurkezpena.

2017-01-28 Soto del Real espetxera martxa.

2017-01-31 Lege arloko profesionalen manifestuaren aurkezpena.

2017-02-02 Manifestuaren aurkezpena Iruñean. 130 pertsona ezagunen sinadurarekin hasi ziren.

Nafarroako Lurralde Auzitegiak defentsaren helegitea aztertzen hasi zen.

Hurrengo orrian segitzen du>

Itxaropenaren arbola landatu dute Baratzekobide plazan

"Urte ilun bat" lelopean egin zen asteartean hileroko protestaldia, sarekadaren urteurrenarekin batera

ALTSASU

Gauzak ongi, heldu den urtetik aurrera fruituak ematen hasiko da Baratzekobide plazan atzo landatutako intxaurrendoa. Hark emandako intxaurrendak jasoko dituztenek gogoratuko dute azaroko gau hotz batean landatu zutela "herri guztiaren borrokaren ikur" gisa, "herri bizia eta haren elkartasuna islatu nahi". Altsasuko gurasoak eta auzipetuak, txandaka, izan ziren intxaurrendoa landatu zutenak, lur paladak edo eskukada botaz. Bitartean gurasoek eskerrik asko zioen pankartari eusten zioten. Euredako amesgaiztoa izan den urte luze honetan babesa azaldu dietenei laguntza estimatuz.

Horrela bukatu zen hilabetero hilabetero 14. egunean Altsasun egiten den protestaldia. Guardia Civilek 2016ko azaroaren 14an herriko zortzi gazte atxilotu zituztela gogorarazi, muntaia salatu eta preso daudenen askatasuna aldarrikatzeko Altsasukoak Aske plataformak antolatzen ditu mobilizazio horiek. Atzo sarekadaren urteurrena zen eta jendea Baratzekobide plazako arkupe ondora deitu



Gurasoak zuhaitza landatzen.

zuten. 20:15etik 20:30era herri guztiko argiteria publikoa itzali egin zen. Toki egokian jarritako jendeak paperak jaso zituen eta argi ultramorez argiztatuz urte bat, Altsasukoak aske leloa ilunpean ikusarazi zuten. Aldamenean, ehunka linternek ilunpean elkartasunaren argia eman nahi izan zuten.

Hori atzo izan zen. Hurrengo hitzordua azaroaren 26an izanen da, domekan, 13:00etan. Iortiaiko zabalgunetik abiatuko da manifestazioa.

Covitek ere Europako bidea hartu du

Altsasuko auziaren inguruko bere bertsioa gutun luze baten bidez helarazi dio Europako Batzordeko presidente Jean Claude Juckerri. Erasoaren biktimei "gertutasuna eta babesa" azaltzeko eskatu diote

ALTSASU

Europako Batzordeko Frans Timmermansek EAJko, EH Bilduko, IUko eta Ahal Duguko eurodiputatuak emandako erantzunak eragin du Covitek gutuna idaztea. Altsasuko auzia gertutik segituko zutela esan zuen Timmermansek irailaren 29an. Elkartek jakinarazi duenez, Europako agintariari bidalitako idatzian "Ospa mugimenduko erradikalek joan den urteko lastailean bi guardia civil eta bere bikotekideak eraso zituztenetik ezker abertzaleak esandako gezur guztiak, banan bana, desmuntatu ditugu".

Coviteko presidente Consuelo Ordoñezek sinatutako gutunarekin, "biktimen bertsioa Europar Batasuneko goi agintariengana iristea nahi dugu, ezker abertzaleak, beste indar politiko batzuek lagunduta, egiten ari den manipulazioa gelditzeko". Auzipetuendako eskatutako zigoren "neurrigabetasunaren"



Covitekoak bidali duten gutunean Osparen berri luze eta zabal ematen da. ARTXIBOA

inguruan Covitetik esan dute "Espainiako Zigor Kodea Europan berme gehien duenetako bat" dela; "erasotzaileei terrorismoa leporatuko ez baliote, gorroto, agintearen kontrako atentatu, lesio eta mehatxu de-

lituengatik eginiko eskaerak antzekoak lirateke".

Covite izan zen Altsasuko auzia Espainiako Auzitegi Nazionalera eraman zuena, ferietako liskarrean "terrorismo eta gorroto delituak" ikusi zuelako.

> Aurreko orritik heldu da.

2017-02-13 Bi adin txikiko deklarazio izan ziren Madril.

2017-02-14 Argi itzalaldia hiru hilabeteko espetxeratzea salatzeko.

2017-02-16 Nafarroako Parlamentuak gorteei Zigor Kodeko 573. artikulua aldatzeko eskatu zion.

2017-02-22 Altsasuko Udalak hiru gazteen askatasuna eskatu zuen.

2017-02-24 100 egun preso, salaketa kontzentrazioan 2.000 pertsona Iruñean.

2017-03-07 Gazte baten auzipetzea baliogabetua. Auzian 8 daude, bi adin txikiko.

2017-03-08 Bi asteroko kontzentrazioak egiten hasi ziren Iruñean.

2017-03-14 Kazokada 4 hilabeteko espetxealdia salatzeko.

2017-03-22 90 diputatu eta senatari inguruk adierazpen bateratua aurkeztu zuten.

2017-03-23 www.altsasugurasoak.com web orrian manifestua sinatu daiteke.

2017-03-24 Nafarroako Lurralde Auzitegiak helegitea onartu eta Iruñean epaitzea eskatzen du.

2017-04-05 Hiru presoen askatasun helegitea atzera bota zuen Espainiako Entzutegi Nazionalak.

Gurasoak azokan sinadurak biltzen hasi ziren. Hiru asteazkenetan izan ziren.

2017-04-14 Kontzentrazioa 5 hilabete preso zeudela salatzeko.

2017-04-15 Futbol 7 txapelketa.

2017-04-28 Kulturaz Aske asteburua.

2017-05-03 Manifestuak 18.000 sinaduren babesa zuen.

2017-05-06 Muntaien kontrako manifestazioa Madril.

2017-05-14 Urte erdi preso eman zutela salatzeko 4.000 pertsonen manifestazioa egin zuten.

2017-05-17 Auzitegi Gorenak epaiketan non egin behar zen erabaki bitartean

Espainiako Auzitegi Nazionalak Nafarroako Lurralde Auzitegiaren errekerimenduari kasurik ez egitea eta kasua tramitatzen jarraitzea "errespetu" faltatzen jo zuten gurasoek.

2017-05-23 Ideien bigarren asanblada egin zen plataformak deituta.

2017-05-29 Abokatuen eskaera onartu eta Gorenak Auzitegi Nazionalari auziaren prozedura eteteko eskatu zion.

2017-05-31 83 alkatek auzia Nafarroako Lurralde Auzitegi bueltatzea eskatu zuten.

2017-06-01 Gorenak auzia Auzitegi Nazionalari ematea erabaki zuen.

Gurasoek eta plataformak batzar jendetsuan euren iritzia eman zuten. Manifestaziorako baimena ez zuten eman. Antolatzaileek deialdia bertan behera utzi arren jendetzak parte hartu zuen. Isuna azaroan iritsi zitzaion guraso bati.

2017-06-03 Gorenaren epai salatu zuten 3.000 pertsonen manifestazioan.

Soto del Real espetxera hirugarren martxa egin zen.

2017-06-06 Adur bakartze modulura eraman zuten, martxakoak agurtzeagatik. Salaketa kontzentrazioak egin ziren.

2017-06-09 Gazteak espetxe desberdinetan dispersatu zituzten: Oihan Navalcarnerora (433 km-ra), Adur Arajuezera (460 km-ra) eta Jokin Extremerara (13an) (465 km-ra).

2017-06-11 Hiruen dispersioa salatzeko 2.000 pertsonen manifestazio zaratsua egin zuten.

2017-06-14 Mural herrikoia egin zuten espetxeratzearen 7. hilabetea gogoraratzeko.

2017-06-19 Nafarroako Parlamentuko Mahaia eta Bozeralamileen Batzordea Altsasun biltzen zela eta gurasoek alderdietako ordezkariak txosten bana eman zieten.

Hurrengo orrian segitzen du>

"Borroka ez da orekatua, baina segituko dugu"

Auzipetutako gazteen gurasoek "bidegabekeriaren" berri zabaltzeko eskatu dute, "gure espetxeratu eta auzipetuendako, eta beren eskubideak errespetatuta izatea merezi duen gizartearendako, benetako demokrazia eta askatasuna eskatzeko unea"

ALTSASU

Guardia Civilak sarekada egin eta ferietako liskarragatik zortzi gazte altsasuar atxilotu zituztela bete da gaur. Haietako hiru preso segitzen dute eta gurasoek beraien berehalako askatasuna aldarrikatu dute. "Gure gazte-riarekin entsegu makabroak egiterik ez dugu nahi. Ezta pertsonak neurrik gabe zigortzea herri batekoa edo gizarte errealitate batekoa izateagatik", salatu dute gurasoek. "Haienak kalkulu mespretxagarriak dira. Gure gazteek eta herri solidarioak tratamendu justua merezi dugu, baina horretarako ez daude prest", gaineratu dute.

Joan den urteko ferietako liskarragatik auzipetutako gazteen gurasoek aitortu dute bi aldean arteko "borroka" ez dela "orekatua. Haiek botere guztiak eta hedabideak dituzte". Horren aurrean euren iritzia zabaltzen segitzeko asmoa irmoa dutela nabarmendu dute. "Gure seme-a-



Asteartean gurasoek herritarren babesa jaso zuten.

labak hain demokrazia gutxieta atzaparretatik libratzen saiatzen jarraituko dugu". Egitako horretan herritarren beharra izanen dutela nabarmendu dute; "zuek guztiok gure ondoan zaudetela badakigu!"

Atzera eginez

Duela urte bateko sarekada "bizitza kentzen" ari zaigu; "urte batez urduritasuna, ziurgabetasuna, beldurra, Espainiako Auzitegi Nazionalerako bidaiak, mobilizazioak, beti zuen lagun-



Auzia eta espetxeratzeak ilunpean salatu zuten.

ta edukiz". Azken urtean bizitako "albiste txarren segidak beldurrezko negarra eragin digu, amorruz eta ezintasunaren negarra. Beraien kalkulu politikoak direla eta, gure seme-alaben bizitza suntsituta geratzen dela ez dugu ikusi nahi".

Abokatuek salatutako epaiketarako lekuko eta proben uko egiteak eta harrek dakarren "defentsagabezia albiste izugarritzat" hartu dute gurasoek. Beste bat "albiste txarren" soka. Hala ere, "borrokan" segituko dutela jakinarazi dute gurasoek eta bide horretan "zuek guztiok gurekin egotea espero dugu".

Hainbat hedabidek eta Juan Ignacio Zoido ministroak joan den astean Senatuan esandakoaren kontra, gurasoek, atzera ere, auzipetu guztiendako errugabetasun-presuntzioa eskatu dute. Epaietaren aurrean egon-eza azaldu dute gurasoek:

"erantzuten ari diren moduan erantzunda, ez dakigu zer epaituko den, zer izango dugun aurrean. Zein gutxi inportazaien errealitatea eta zein in-punitate erakusten digun beraien jokaerak, itxurak ere gorde gabe!"

Gazte auzipetuen gurasoek nabarmendu dutenez, "guk, orain arte, errespetuzko jokabidea izan dugu estamentu guzti-ekin, erantzun berdina jaso ez dugun arren". Adur, Jokin eta Oihan kartzelan dauden bitartean "kasuarekin zer ikusia duten pertsonak saritzen dituzte. Hau al da ekitatea?"

"DEFENTSA GABEZIA ALBISTE IZUGARRITZAT" HARTU DUTE GURASOEK

> Aurreko orritik heldu da.

Parlamentuak auzian dagoen "proportzionaltasun faltagatik" kezka azaldu zuten.

2017-06-29 Gurasoen ordezkari eta abokatuetako bat Europako Parlamentuko taldeekin bildu ziren Bruselan. 51 eurodiputatuk adierazpena sinatu zuten.

Adurren senideek auto istripua izan zuten espetxetik bueltan.

2017-07-04 Fiskaltzak egin zezakeen zigor eskaerarik handiena egin zuen: 375 urte guztiendako.

2017-07-05 Herritarrez babestuta, gurasoek prentsaurrekoa eman zuten eta zigor eskaera "neurrigabeak" zirela salatu zuten.

Udalak zigor eskaerarekin "erabateko desadostasuna" azaldu zuten.

2017-07-07 4.500 pertsonen manifestazioa egin zuten. Gurasoek

"injustiziar buruzko argudioak" zabaltzeko eskatu zuten.

2017-07-14 Auzia salatzen lruñeko Gaztelu plaza jendez bete zen.

2017-07-20 Fiskaltzaren egoitzaren parean kontzentrazioa egin zuten Madrilan.

2017-07-22 Gurasoek Elizondon ekin zioten informazio-hitzaldien errondari.

2017-08-06 Gasteizko festetan kontzentrazioa egin zen.

2017-08-14 Kontzentrazio jendetsua Dantzalekuko igerilekuan. Xarxa Anti-repressió de Familiars de Detingudes taldeko ordezkari eta Altsasun.

2017-08-19 Donostiako festetan kontzentrazioa egin zen.

2017-08-21 Bilboko festetan kontzentrazioa egin zen.

2017-09-04 Nafarroako Parlamentuko Bozeralamileen Batzordeak fiskaltzaren eskaerarekin "erabateko desadostasuna" azaldu zuten.

2017-09-07 Aurrera Altsasu! kantua eta bideklipa aurkeztu zituzten.

2017-09-09 Fermin Muguruzaren elkartean kontzertua.

2017-09-14 Auzia salatzen elkartean jaitsiera egin zuten peñetako kideek. Hurrengo egunean kontzentrazioa egin zen.

2017-09-16 Herri mugimenduak deituta manifestazioa egin zen.

2017-09-19 Presoei zazpigarren aldiz askatasuna ukatu zieten.

2017-09-27 Altsasukoa terrorismotzat ez hartzea eskatu dute 47 gizarte eta kultur kolektibok.

2017-09-29 Europako Batzordeko lehen lehendakariorde Frans Timmermansek esan zuen gertutik segituko dutela Altsasuko auzia. Zigoren proportzionaltasuna eta oinarriko eskubideak betetzen direla aztertuko du.

2017-10-13 Iluntzeko kontzentrazioarekin ferietako asteburuko karpa mustu zen. Han presoendako 500 gutun pasa jaso ziren.

2017-10-16 Guardia Civileko elkarte batek Altsasuko kideak omendu zituen. Aurretik alkatearekin izandako elkarrizketa ezkutuan grabatu eta web-hedabide bati pasa zioten.

2017-11-14 Urtebete Guardia Civilak sarekada egin zela. Auzia salatzen argiteriaren itzali eta kontzentrazioa egin zen.

Abokatuek "defentsarako frogak gehienak ukatuta, defentsarako eta prozesu zuzena izateko eskubidea urratu" dela salatu zuten.



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Bizi!

Joan den asteko zenbait albistek haurra eta neska nintzen garaira bidaiatzeko eta oroimena borborka jartzeko parada eman didate. Iñigo Aritza BIZI NAFARROA OINEZ 18 antolatzaileen eskutitza jaso dugu bertako kide izandakoek, gonbita ohoretsua. Bertan esaten dena "memoria" egiteko aproposa izan da, euskararen "laguntza" dei larriari erantzunez eta Euskal Herriko gizarateak bultzaturik, ikastola sortu eta indartu genuen belaunaldiko senide-lagunartekoa izan ginela oroitarazteko.

Gu txikitxoak-gaztetxoak izaki, ez ginen asko jabetu zein eronka izan zen 1981. urteko lehenengo Nafarroa Oinez hura, ezta aurretik ikastolak sortzeko askok eta askok egindako elkarlanaz ere. Bagenekien eskulanetako Joxe Ramon maistrak marraztu zuela soinean eramaten genuen kamiseta eta poltsa zuri haiek zeramaten marrazkitxo koloretsua. Segur aski, Anda artistak soilik jakin eta uler zezakeen irudi haren esanahia. Noizbait kontatuko zigun, baina ahaztua nuen lauki jostalarian, lau zati, lau kolore, lau herri irudikatzen zirela: Ziordia, Olazti, Altsasu eta Urdiain. Etxarriko Ikastola, jada, bere ibilbidea egiten hasia zen.

Derrigorrezko hezkuntza guztian, katuek katakumeak ibiltzen dituzten antzera ibili ginen gure ere, batetik bestera: Etxarri bajeratan (Kaxarna kalean, Xapateronean, Apaizenean, Ermiñenean...), Altsasuko "Lavadero" zaharrea eta azkenik Iñigo Aritza ikastola dotorean, haritzez inguratua. Makina bat ibilera izango dute kontatzeko gure inguruan zeuden helduek, gurasoek, irakasleek, mendizale-kultur elkartetako gazteek, dantzariak, musikariak... den-denek euskara maite-maitea zutenak. Ordungo bizipenei musika jarriko bagenio, "Zu, gazte sentimental", "Loretzoa" edo "Ez dok hiru" antzerkiko beste kanta askorekin akordatzeko nahikoa da.

Lehenengo Nafarroa Oinez hura ospatzen ari zen garaian, jadanik, Altsasuko ikastolatik atera ginen lehen belaunaldikoek derrigorrezko ikasketen ibilbidea amaituta edo amaitzear genuen. Ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko aukerak eskasak ziren 8. maila amaitutakoan (oraingo DBH 2.a dena). Garai hartako BUP edo BBB (Batxilergo Bateratu Balioaniztuna) Nafarroan eta euskaraz egin nahi bazenuen, aukera bakarra Iruñeko San Fermin ikastola zen. Orduan ere hara joan ginenok ez ginen asko jabetzen gure gurasoek egin zuten ahaleginaz eta beren seme-alabak euskaldun egiteko hartutako erronkaz. Beren ausardia eta adorea aitortzeko urteak behar izan ditut. Harro nago hazi hartatik sortutakoak garela eta ardura ere badugula horri eusten, gal ez dadin. Horregatik BIZI da datorren urteko Nafarroa Oinez leloa. Eta oroitzenenatik atera ezinik nabilenez, ezin ahaztu oinarri berarekin mugitzen ginela Askagintzakoak ere, BIZIRIK EGUNA eta BIZIKIDEAK eginez.

GUTUNAK

Orain, presoak kalera!!

JUAN KRUZ ALDASORO, RAFAEL LARRAZA "TXIFLI", FELIX ALTZELAI, JUANITO NAZABAL, FERNANDO FLORES ETA EUGENIO ULAIAR

ETXARRI ARANAZKO PRESO OHIAK

Joxe Migel Gaztelu bergaratar-etxarriarraren itzulerarekin, 80 urtetan lehenengo aldiz preso politikorik gabeko herria da Bergara. *O ohe huts* izeneko ekimenarekin ospatu dute. Bergararik Etxarriara, eta Etxarritik Euskal Herri osora zabaldu nahi dugun *O ohe huts* ekimena. Horretarako, gatu segitzen duten 300dik gora euskal herritarren kaleratzea lortu behar dugu.

Horietatik zazpi dira etxarriarrak: Unai Parot -1990. urtetik preso-; Asier Karrera -2000.tik- Luis Mariñelarena eta Juan Ramon Karasatorre (-2001.tik-); Jon Gurutz Maiza eta Oihan Barandalla (-2007.tik-); eta Hodei Ijurko (-2008.tik-).

Gatazkak eta sufrimenduak markatutako aroa atzean utzi nahi dugu betirako; eta etorkizunari begiratu nahi diogu. Horretarako, ezinbestekoa da arrazoi politikoengatik preso edo ihesean dauden herritarren etxeratzea. Bai, baina nola? Nola mugiarazi ukazioaren eta mendekuaren politikan tematuta dauden Estatuak?

Gure Herriaren indarra eta nazioartean lor genezaken babesa dira Estatuak mugiarazteko ditugun tresnak. Kataluniatik ikas dezakegu herri bat helburu baten inguruan biltzen denean geldiezina dela. Debekatua zegoen galdeketa egin eta Espainiako Konstituzioan kabitzen ez den Errepublikak aldarrikatu dute. Bidearen amaierara iristeko oztopo ugari gainditu beharko dituzte oraindik, baina egunetik egunera beraien helburuetatik hurbilago daude. Presoen aferan, armagabetzearen inguruan bezala, herri gisa

jokatzen ari dira Ipar Euskal Herrian. Armagabetzean helburua lortu zen, orain presoen eremuan Frantziako Gobernua mugiaraztea da helburua. Herri gisako batasunarekin batera, indarra erakutsi behar da orain, horregatik da hain garrantzitsua abenduaren 9an Parisko kaleak betetzea.

Frantziako Gobernua mugiaraztea lortzen bada, gero eta isolatuago aurkituko da Espainia bere itxitasunean. Herri gisa jokatu behar honetan berebiziko ardura dute euskal preso politikoei. Amaitu berri duten eztabaidan erabaki sendoak hartu dituzte beraien ekarpena kalera begira jartzeko herriarekin batera askatasunera eta benetako bakera eramanez gaituen bidea egiteko.

Herriaren garaia da, gu guztion garaia. Besarkada iraultzaile bat eta eutsi goiari!

OBJEKTIBOTIK

Iñigo Aritzakoak aitona-amonekin

NUPEk antolatutako "Aitona-Amonarekin Unibertsitatera" ekimenaren parte hartu dute Iñigo Aritzako DBHko ikasleek eta haien aitona-amonek. Landareekin fotosintesia aztertzeo esperimentuak egin zituzten eta intsektuen metamorfosia aztertu zuten, besteak beste.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Erkuden Ruiz Barroso
Larraitz Amadoz Lazkano

Zuzentzailea:
Maria Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

**Erredakzio burua:**

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz
publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107
618 882 675
661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



NAFARROAK EZETZ DIO

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

NAFARROAKO UDAL ETA
KONTZEJUN FEDERAZIOA



FEDERACION NAVARRA
DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS

Hondakin organikoen jasotzeak badu data

Sakanako Mankomunitatea hondakin organikoak biltzen ilbeltzaren 15ean hasiko da. Edukiontzia marroia ezartzeko lanak hasi ditu eta hari buruzko informazio kanpaina heldu den asteko hitzaldi sortarekin hasiko da

ALTSASU

Jakinik etxebizitzetan gehien sortzen den hondakin mota organikoa dela, hondakin mota hori biltzeko 5. edukiontzia, edukiontzia marroia, jartzea erabaki zuten Altsasuko Udalak eta Sakanako Mankomunitateak. Helburua Altsasuren hondakinen gaikako bilketa gaur egungo %28tik %65era pasatzea da, 2018ko abenduaren 31rako lortu nahi dute. Premiagatik, Europako legediak gaikako bilketa 2020rako gutxienez %50ekoa izatea eskatzen duelako. Sakanako gainontzeko herrietan %80aren bueltan dago.

Helburua lortzeko Sakanako ilbeltzaren 15a bitartean Mank-ek informazio kanpaina handia egingen du. Izan ere, 3.767 etxebizitzetatik 2.260k (% 60) izena eman beharko lukete bi erakundeek adostutako helmuga lortzeko. Oraingoz % 8k besterik ez dute izena eman. 5. edukiontzia inguruko informa-



Mank-ek dagoeneko edukiontzia marroindako metalezko postea jartzen hasi da.

zioa emateko, erdialdean, Alde Zaharrean eta zabalgunean informazio-bilera bana antolatu du Mank-ek. Aurrerago bilera selektiboak eta informazio banaketa egitea ere aurreikusiten du. Argibideak nahi ditue-

nak 900 730 450 doako telefonora hots egin dezake.

Mank-eko Hondakin Zerbitzuak ez du baztertzen berriro Baratzekobide plazako lokomotora informazio puntu gisa zabaltea.



Javier Ollo Martinezek eta Elena Aldasoro Galanek sinatu zuten hitzarmena.

Udalak eta ADEk Merkataritza Mahaia osatu dute

Altsasun merkataritza arloan egin daitezkeenak adostu eta baloratzea da haren egitekoa. Hitzarmena berri dute

ALTSASU

Altsasuko Udalak eta Altsasuko Dendarien Elkarteak (ADE) 2014az geroztik elkarlan hitzarmena dute, urtero berritzen dena. Joan den urtean berri dute Javier Ollo Martinezek eta Elena Aldasoro Galanek. Hitzarmenaren jasotzen den berritasuna Altsasuko Merkataritza Mahaia-aren sorrera da. Udaleko Ekonomia Sustapenerako Batzordea eta ADEko kideek osatu dute mahaia. Urtean zehar Altsasun merkataritzaren arloan egin daitezkeen jarduerak adostu eta baloratzea izanen du helburu aipatutako mahaia. Urtean gutxienez bitan elkartuko da batzordea eta bietako edozeinek eskatu ahalko dio bilera batzordeko buruari. Oraindik ez dago lehen bileraren data zehaztuta.

ADEko ordezkari Aldasorok hitzarmena berrikerakoan esan zuenez, “denda txikien aldeko pauso ona da. Udalarekin komunikatzeko bide errazagoa da. Espero dugu mahaian entzun bai baina ideiak ere sortuko direla. Guk ideiak sortzea nahi dugu”. Agerraldian azaldu zuenez, aurki egingen den Eguberri kanpainara 2.000 euro inguru bideratuko ditu ADEk.

Udalaren aldetik

Altsasuko establezimendu gehien biltzen dituzenez, “udalarendako ADE merkataritza arloaren ordezkaria da. Bera da gertuko merkataritzaren interesak zaintzen dituen”, esan zuen alkateak. Ollok gogorarazi zuenez, hitzarmenaren bidez, ADEk Gure Etxea eraikina bilera, batzar, prestakuntza saio eta bestelakoetarako erabiltzeko aukera izanen du. Aldi berean, udalak ADE antolatutako jardueri laguntza eta erraztasunak eman dizkiola aurreratu du.

Ollok gogorarazi zuen udalak establezimendu txikiak laguntzeko ahal duen neurrian ahalginak egiten dituela. “Aurten ekonomia-sustapen proiektuetarako laguntza 1.000 euroko diru-saila sortu du udalak. Baina 2018ko aurrekontuetan ADEren ekimenak laguntzeko diru-sail bat izanen da”, aurreratu zuen alkateak. Establezimenduen ezarpena laguntzeko aurten, estreinakoz, udalak ekintzailatza laguntzeko 5.000 euroko diru-saila izan duela gogorarazi zen Ollok. Hori orain arteko fiskalitate arloko hobariei edo udal zergen-salbuespenei gehitu zaizkie.

Kronologia

- **2016-06-09** Altsasuko Udalak 5. edukiontzia ezartzeko Mank-ekin sinatu beharreko akordioa onartu zuen.
- **2016-07-06** Altsasuko Udalak eta Mank-ek akordioa sinatu zuten. 140 bat edukiontzia jarriko lirateke.
- **2016-11-14** Edukiontzia marroiar buruzko lehen informazio bilerak.

• 2016-11-21

Baratzekobideko plazako informazio puntua astelehen, asteazken eta ostiraletan zabaltzen hasi zen.

- **2017-04-07** Soilik 91 etxebizitzek zuten izena emana.

- **2017-04-26** Jende gutxi izena eman zuela ikusita, Altsasuko Udalak, Mank-ekin adostuta, % 65eko helburua 2018ko abenduaren 31rako lortzea erabaki zuen.

Informazio hitzaldiak

Mank-ek antolatutakoak

Asteartea 21

- **19:00** lortia kultur gunean.

Asteazkena 22

- **19:00** Gure Etxea eraikinean.

Osteguna 23

- **19:00** Intxostiapunta gazte gunean.



EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Etxe pasiboetarako egokia



Beirak lehorrean jarrita



Isolamendu nukleo indartsua



Aparteko azala koloreztatua



Mank-en egoitzan ari dira trebatzen.

Elkarbizitzaren alde egiteko, zurrumurruei kontra egin

Horretan trebatzen ari dira 20 bat sakandar, zurrumurruei kontrako agente izateko

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak antolatutako ikastaroan parte harzen ari dira. Ikastaroaren helburua zurrumurruei, estereotipo eta aurreiritzien inguruan hausnartu, eta nigidik desberdina denarekiko ditugun aurreiritzien oinarrian hausnartzea da. Horrekin batera, zabalduen dauden zurrumurruei aurre egiteko estrategiak eskaini, komunikazio eta estrategia emozionalak landuz. Aldi berean, beste pertsonetako dugun ezagutza hobetu, aniztasunean elkarbizitza errazteko helburua du.

Ostiraleko saioan Zaska, Zurrumurruei Kontrako Nafar Sarearen eta Izaskun Andueza Nafarroako Unibertsitate Publiko irakasle lakuntzarrak buru duen Zurrumurruei kontrako tresna aurkeztu zuten. Larunbatean, berriz, Raquel Moreno kataluniarrak, soziologian lizentziatuak, eta giza parte-hartzean espezialista, Zurrumurruei kontrako kudeatzeko estrategia komunikatibo eta emozionalak azaldu zituen. Ikastaroa ostiralean despedituko da. Zaskako kideek ikasitako praktikan nola jarri azalduko diete parte-hartzaileei.



Anfas elkartearen egoitza Lakuntzako lan-eskola zaharrean dago; Mank-en eta Tasubinsaren ondoan.

Anfasen egoitza, zerbitzu berri bat Sakanarako

Lakuntzako egoitza ostiralean mustu zuen. Urteetako behin-behinekotasunarekin bukatzen dute horrela eta ibarrari zerbitzu eskaintza zabalagoa emateko aukera du horrela elkarteak, egungo eskaintza sakandarren beharretara egokituko baitute

SAKANA

Anfas, adimen urritasuna duten pertsonen eta bere familien aldeko Nafarroako elkarteak, egoitza propioa du Sakanan. 91 bazkide eta adimen urritasuna duen kideren bat duten 39 familia biltzen ditu elkarteak. Mustutze ekitaldian Javier Goldaraz presidentek nabarmendu zuenez, “adimen urritasuna duten pertsonen ez dute erraz, baina hiriburutik urrun bizita, zailagoa da. Ez da erraza Iruñean eskaintzen diren zerbitzuetara joatea 40 km-tara bizi zarenean. Ez da erraza 300 biztanleko herri batean adimen urritasuna duen pertsona bat izatea eta programa bat izatea”.

Hori guztia kontuan izanda, Goldarazek Sakanako egoitzaren garrantzia nabarmendu zuen: “Anfasen egoitza honekin arazo horiei konponbidea eman nahi die. Garapenerako nahasmen duaren prebentzioan hain garrantzitsua den arreta goiztiarra behar duten haurrek hona etor-

tzeko aukera izan dezatela, etxetik gertu. Trebetasunak eta psikomotrizitate lantzeko ere”. Goldarazek “elkartearen motorra diren familiak” ere gogoan izan zituen. Presidenteak azaldu zuenez, “egoitza dugu eta zenbait programa martxan ditu, baina sakandarren beharretara egokituko diren beste programa askoz ere gehiago eskaintzeko

lan eginen dugu. Anfasen gaur dauden haurrei eta gazteei bizi guztian akonpainamendua eman eta beharrezko babes guztia ematen diegu”.

Ibarrean

Anfas 1961ean sortu zen eta elkarteak ia sorreratik Sakanan lan egin du. Ibarreko batzarra 1972an sortu zen. Baina ez zuten

egoitzarik. Ibarreko arduradun Lourdes Cuestak azaldu zuenez, “beti mailegatutako espazioetan geunden: ikastetxeek, udalek orduetarako, egunetarako utzitako espazioak ziren. Horrela ezin genuen erantzun egokirik eman”. Hala ere, Anfasen urratsak eman zituen: dozena bat sakandarrekin hezkuntza bereziko gela zabaldu zuten 1982an. Bost urte geroago Tasubinsako tailerra martxan jarri zuten.

Elkarteak behar bezalako zerbitzuak emateko egoitza ezinbestekoa zela jabetuta, Lakuntzako Udalaren atea jo zuten. Lan-eskola zaharrean biltegi gisa erabiltzen zuten espazio hartaz galdetu eta baiezkua eman zuten jabe diren udalek. 2012an izan zen eta egoitza 20 urterako utzi zitzaion. Krisia dela eta ezin izan zioten berehala lanei ekin. Once fundazioaren diru-laguntzari esker 2015eko lastailean hasi zituzten egokitzen lanak eta apirilean, lanak despedituta, lanera hara sartu ziren. Bulegoa, bilera gela, psikomotrizitate eta bizkortze gela, goiz arretako saioetarako gela, harrera eta komunak ditu egoitzak. Zerbitzuak emateko bai, baina familien topagune izateko funtzioa du; haien bizipenak, esperientzia eta informazioa partekatzeko.

Bi familia erabiltzaileek, Amaia Oraak eta Ander Muñozek, mustutze ekitaldian egoitzak izatearen onurak azpimarratu zituzten. Gaur egun honako zerbitzuak eskaintzen dira: arreta goiztiarra; gizarte-, akademia eta komunikazio gaitasunak; psikomotrizitatea; informazioa eta aholkularitza; senideendako laguntza taldea; dinamizazioa; Biak-bat-ekin elkarlana; sentsibilizazioa; Mank-ekin bilerak eta ibarreko koordinazio bilerak.

CONSTRUCCIONES ALZATE S.I.

ALZATE ERAIKUNTZAK S.I.

Zubeztia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionosalzate.com

BILTOKI
TABERNA · JATETXEA

948 467 876 · Altsasu

Txalaparta
Ondo Pasa San Juanetan
Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

San Klemente festetarako dena prest dute Lizarragan

Joan den urtean bezala, aurten ere, festak hainbat lan talderen bidez antolatu dituzte.

LIZARRAGA

San Klemente festekin ziurra dena etxe askotan ez dela ardi tripotarik faltako. Ezta festak hasteko ere. Joan den urteko harrera ona ikusita triptoteoa eginen dute frontoian, hau da, ardi tripota eta ardoa euro batean dastatzeko aukera izanen da. Txomin Agirrek egindakoak izanen dira.

Festa hasiera hori ospakizunen antolakuntzaz arduratu den lantaldeetako batek eginen ditu. Egitarauko beste egitekoez beste lantaldeak arduratuko dira. 2016an Lizarragako Kontzejua eta herritarrak bildu eta festen inguruan hizketatu ondoren erabaki zen festak horrela antolatzea. Gaur eta bihar afariak daude iragarriak eta hori ere norbaiten ardura da. Aurrenekoan 40 bat elkartuko dira eta bigarrenean ehun bat. Festak

iragartzen duen kartelak urteko balkoi politenaren argazkia dakar, Arleze egunean aukeratu zuen epai mahaiak eta aitortza Xarminttoneko etxeak jaso du. Eta ezin falta aitortza, igandean herriko adinduei eginen zaiena.



Kontzeju-etxea lizarratarren bilgune izanen da atzera ere. ARTXIBOA

Eztanda Irratiak 18. urteurrena ospatuko du bihar

Iturmendiko Gazte Asanbladak kudeatzen duen irrati 1999ko udazkenean emititu zuen estreinakoz. Haiek beraiek egindako emisore txiki batekin; herrirako lehenik, eta tramankulu hobeekin Sakana guztirako emititzeari ekin zioten. FM 107,6 edo www.eztanda.com web orri berritua-ren bitartez entzun daiteke bere emanaldia. +www.guaixe.eus

San Klemente festetako egitaraua

Ostirala 17

- 19:30 Triptoteoa, frontoian.
- 22:00 Herri afaria, elkartean.
- 02:00 Tokan2Lapollaren kontzertua elkartean.

Larunbata 18

- 12:00 Kalejira, Amalur taldearekin.
- 13:00 Meza nagusia.
- 14:00 Auzatea.

- 17:30 Haur eta helduendako jolasak, puzgarriak txikiendako
- 19:00 Txokolate-jana.
- 19:30 Dantzaldia Oharkabe taldearekin.
- 22:00 Herri afaria.
- 00:00 Dantzaldia Oharkabe taldearekin..

Igandea 19

- 12:00 Kalejira, Amalur taldearekin.

- 13:00 Meza Nagusia.
- 14:00 Auzatea eta adinduei omenaldia.
- 16:30 Haurrendako tailerrak.
- 17:30 Mus eta briska txapelketak Azi-iturri elkartean.

Osteguna 23, San Klemente

- 13:00 Meza.
- 14:30 Jubilatuen bazkaria.

Egitaraua

Larunbata 18

- 11:30 Taloak, plazan.
- 14:00 Bazkaria Aritzagan. Andoni Ollokiegiren kantaldia.
- 19:00 Furgobira eta mozkor-jolasak.
- 22:00 Afaria, Aizkotzar.
- 23:30 Kontzertuak gaztetxean: Garabatos eta Guri5 (erromeria) eta gaupasa.

ORAIN, HITZALDIA

Azaroak 25, 19:00etan
Kultur Etxean, Etxarri Aranatz

PRESOAK KALERA!


baina nota?



Amaia Izko
Abokatua
Egoera juridikoaz



Xabier Alegria
EPPK mintzakide oiha
Presoek egin duten apostuaz



Presoen aldeko Parisko mobilizazioaren aurkezpena

Sarek sakandarrak gonbidatu ditu: larunbatean, 12:00etan, Etxarriko kultur etxean

SAKANA

Bakearen Artisauak ETAREN armagabetezko lehen saioa joan den urteko abenduaren 16an egin zuten eta atxilotuak izan ziren, Luhuson. Baina haren “eraginak, babesak eta zilegitasunak” ekarri zuen ETA-ren armategiaren desegitea apirilaren 8an. Bakearen Artisauak “bake bidean beste urrats berri bat” eman nahi dute. Oraingoan Frantzia dauden “presoei aplikatzen zaizkien salbuespenezko neurrien amaiera” lortu nahi dute. Hau da: “DPS estatusaren kentzea; hurbilketa eta elkarretaratzea; gaixorik dauden presoen askatzea eta baldintzapeko askatasuna, zuzenbide arruntaren baitan eskubide hori lortu dezaketena presoenentzako”. Horregatik, abenduaren 9rako manifestazioa antolatuta dute Parisen.

Mobilizazio horren berri emateko aurkezpena antolatu du Sakanako Sare herritarrak. Frantzia euskal presoei ezartzen zaien salbuespenezko espetze politikaren akabera eskatzeko Parisen egingen den mobilizazioaren berri Mixel Berhokoirigoiaren bakearen artisauak, Eneka Maiz Etxarri Aranazko alka-teak eta Senideak, Sakanako Sareko kideek eta presoen lagunek emanen dute. Saretik nabarmendu dute “urrats garrantzitsua” dela, “Frantzia egin liteken presioak mugi arazi ditzakeelako estatu espainiarrak momentu honetan erakusten duen blokeo eta itxikeria”. Frantziako espetzeetan bi etxarriar daude preso: Juan Kruz Maiza eta Oihan Barandalla. Sare herritarrak biharko eta Parisko manifestazioan parte hartzea gonbidatu ditu sakandarrak.

Parisera joateko autobusak antolatu dira. Haietan joateko 65 euro ordaindu beharko dira. Ohiko tokietan eman daitezke izena.



Etxarriko orroigarrian larunbat eguerdian egin zuten lore eskaintza.

Udalak Arregiri “gatazkaren biktima” izaera aitortu dio

Larunbatean 38 urte bete ziren Guardia Civilak Mikel Arregi zinegotzi lakuntzarra Etxarrin hil zuela

LAKUNTZA


1979ko azaroaren 11ko gauean Mikel Arregi lakuntzarra Ziorditik bueltan zetorren Lakuntzara, beste lau lagunekin. Lakuntzako Pertza eguneko tripotak Ziordiko harategi batean egiten ziren orduan, eta, hain zuzen ere, tripotak ordaintzetik zetozen bostak. Etxarri Aranazko kuartela zenetik pasatzera koan, tiroka hasi ziren Guardia Zibilak eta Arregi larriki zauritu zuten. Ospitalera bidean hil egin zen orduan Lakuntzako Udaleko zinegotzia zena.

Lakuntzako Udalak lastailaren 30ean egindako osoko bilkuran gertatutakoa gogora ekarri zuen. Gogora ekarri zuten Guardia Civilak orduan esandakoa, lakuntzarrek Etxarrin zegoen kontrol bat geratu gabe gainditu zutela. “Bi urte barru burututako epaiketako epaiak argi jasotzen du ez zegoela inolako kontrolik. Hala ere, inpunitatea erabatekoa izan zen. Arduragabekeria arina egotzi zieten guardia zibilei eta bi hilabeteko espetzealdia besterik ez zuten izan. Orduz geroztik, inpunitateak ez du etenik izan eta Etxarrin Arregiren omenez jarri zen monolitoak ere hamaika eraso pairatu ditu” gogoratu du Udalak.

Egia, justizia eta erreparazio osoa eskatu du Udalak

Aurreko legegintzaldian 16/2015 Foru Legea onartu zuen Nafarroako Parlamentuak, motibazio politikoa dela eta, funtzionario publikoek edo eskuin-muturre-

ko taldeek eragindako biktimak aitortu eta erreparatzeko. Lakuntzako Udalak gogoratu zuen Espainiako Gobernuaren eskariz Auzitegi Konstituzionalak helegitea jarri diola aipatu legegari, eta bertan behera utzita daukala. Hortaz, oraindik ere Arregik ez du biktima aitortza ofizialik. Horregatik, Lakuntzako udalak, aitortza eta erreparazioaren bidean, ondoko ebazpena onartu zuen osoko bilkuran: Arregiri gatazkaren biktima izaera aitortzea eta egia, justizia eta erreparazio osoa eskatzea. Bigarrenik, bere heriotzaren 38. urteurrenean Arregiren familiari elkartzasun eta babes osoa ematea onartu zuen Udalak, eta, azkenik, onartutako adierazpena Nafarroako Parlamentuari heleraztea erabaki zuen, “honek aintzat hartu eta bere eskumenen baitan herri eta udal honen borondatea bidera dezan”.



Joan den urtean Historia-Memoriaren Parkean egindako ekitaldia. ARTXIBOIA

Historia-memoriarekin hitzordua kultur etxean

1936ari buruzko hitzaldia eta olaztiarrek jasandako errepresioari buruzko erakusketa prestatu dute

OLATZAGUTIA

1936ko estatu kolpearen ondorioz Urbanan eraildako pertsona asko identifikatu dira azken bi urteetan. Horretan guztian oso lagun-garriak izan dira, besteak beste, Balbino Garcia de Albizu Jimenez ameskuarrak eta Amaia Urkijo Artola altsasuarrak egindako ikerketak. Biek ere fusilatutako senideak dituzte. Garcia de Albizuk, gainera, bere ibarreko historia-memoria liburu batean jaso nahi zuen.

Baina Urbanan gertatutakoa-gatik Garcia de Albizuk Ameskoako mugak gainditu behar izan zituen. Horregatik, *¿Qué hicimos aquí en el 36? La represión de civiles en retaguardia por su ideología en las Améscoas y Urbasa* liburuan kapitulu zabalenetako batek *El matadero de Urbasa* izenburua du. Balbinok berak esan zigunez, “Etxarri Aranazko eta Olatzagutiko

kontu asko daude, Altsasukoak ez hainbeste”. Horrek Olatzagutiko memoria taldeak Garcia de Albizu 1936. *La verdad no prescribe* hitzaldia ematera gonbidatu du. Larunbatean izanen da, 19:00etan, kultur etxean.

Erakusketaren osagarri, memoria taldeak 1936. *Zer gertatu zen Olaztin?* erakusketa prestatu du. Hartan 1936an eta ondorengo urteetan olaztiarrek jasandako errepresioari buruzko hainbat dokumentu ikusgai izanen dira. Aipatu garaian 17 olaztiar erail zituzten; beste bost frontean hil ziren; gutxienez 27 espetxeratu zituzten; 5 funtzionariok lanpostua galdu zuten; gutxienez hamarri ondasunak kendu zizkieten; bi errefuxiatu egin ziren eta 11 emakumeri ilea moztu eta publikoki umiliatu zituzten. Bihartik hilaren 30era arte izanen da ikusgai kultur etxeko 1. pisuko 2. gelan.



Gazteek egun batez Ziordia hartu zutenekoa

Sakanako gazte asanbladek ibarreko gazte eguna antolatu zuten larunbatean Ziordian. Goizean lau gairen inguruko mintegiak egin zituzten eta bazkaldu ondoren festa giroa nagusi. Egitarauaren lehen balantzea “oso ona” izan dela esan digute

ZIORDIA

Sakanako gazte asanbladak aspaldi zebiltzan “prestakuntza, aldarrikapena eta festa lotuko zituen” ibarreko egun bat prestatu nahian. Eta, azkenean, larunbatean iritsi zen Sakanako gazte eguna, Lakuntza eta Ziordia bitarteko gazte asanbladek antolatu zutena. Herri horietako guztietako gazteak erakarri zituen hitzorduak.

Goizean lana, feminismoa, euskara eta errepresioa mintegiak izan zituzten eta bakoitzean 20 bat gazte parte hartu zuten. Han egindako hausnarketei segida emateko gogoz gelditu ziren batzuk. Hura despeditu berritan margotu berri zegoen muraletan argazkia egin eta Amarauna espazio autogestionatua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten. 250 gazte elkartu ziren bertso bazkarian. Arroza urdiaindarraren eta olaztiarren ardua izan zen. Aurreko egunetan elkarri bideo-erronkak bota on-



Sakanako gazte asanbladak mural berriaren aurrean. GUAIXE

doren, gazte asanbladek olinpiadetan indarrak neurtu zituzten.

Izandako harrerarekin “oso pozik” daude antolatzaileak, “goizeko mintegietara eta gaueko kontzertuetara jende asko gerturatu zen”. Hala ere, egu-

naren balorazioa egitera elkartuko dira. Izan ere, “azken hilabeteotan jorratutako elkarlanak bere fruituak eman eta sortutako harremanari eutsiz, aurrera begira, koordinatzen jarraitzea espero dugu”.

Patata operazioan 3,5 tona jaki jaso zituzten Alegria peñakoek

Sakandarrek emandako patatak, kuiak, tipulak, azak, porruak, alubiak, tomateak eta 167 euro eman zituzten



Peñakideak Arbizon. Iruñeko egoitzan 13 moja eta 64 pertsona gehiago bizi dira.

SAKANA

Patata operazioak bi protagonista ditu. Batetik, Iruñeko Alegria peñako kideak eta, bestetik, sakandarrak. Aurrenekoek 55. aldiz operazioa antolatu zuten. Bigarrenek patatak, barazkiak eta 167 euro eman zituzten. Peñakideak Urdiain eta Satrustegi arteko ibilbidea egin zuten. Bozina joz, karraka batekin egindako zaratarekin eta patata operazioa oihu eginez aurkeztu ziren herrietan. Azken urteetan bezala, Uharteko Arakilgo Donibane jubilatuko elkartek herrian barna ibiltzeko lana aurrezten die eta mila kilo patata eta 50 euro prest zituzten peñakideak iritsi zirenerako. Bilketaren ondoren Iruñeko Hermanitas de los Pobres edo Behartsuen Haurrideak kongregazioaren egoitzan jakiak utzi zituzten.



NEREA MAZKIARAN

Festa, eguraldia gora-behera

Sanmartinak ospatu zituzten irurtzundarrek eta bisitariak asteburuan. Iratxoren mus txapelketa Juan Carlos-Koldo bikotearendako izan zen. ErgaLarreak elkarteko gozogintza lehiaketa, berriz, Carmen Kerejetarendako izan zen. Artisau azokan haiei erosteaz aparte haurrek landare eta buztingintzan aritzeko aukera izan zuten. +www.guaixe.eus



GUAIXE

Lakuntzako Pertzakoen festa

Larunbatean ospatu zen Lakuntzako Pertzako elkarteko bazkideen eguna. Mikel Arregiren heriotzaren urteurrena zenez, lehenik eta behin lore eskaintza egin zitzaion Guardia Civilak hildako elkarteko kide izandakoari. Ondoren Nafarroako Sokatira Txapelketa, aizkora apustua, auzatea, bazkaria eta musika eta dantzaldiaren txanda etorri zen.

Bakaikuko elkartean festa

Pixkanaka poteora batuz elkartu ziren Bakarrekoko etxea elkarteko kideak larunbatean. Batzuk zuzenean joan ziren bazkaltzera. Mahaira esertzen lehenak haurrak izan ziren. Haiek bukatu ondoren helduen txanda iritsi zen. Bazkaldu ondoren batzuk tailerrekin majo pasa zuten bitartean besteak mahai jolasetan aritu ziren. Eta dantzan ordu txikiak arte.



Udalak lan eskaintza publiko oinarriak onartu ditu

Altsasuko Udalak bi lanpostu betetzeko lan eskaintza publikoa egingen du hurrengo astetan. Alde batetik, Udaltzaingoko agente plaza betetzeko deialdia egingen du aurten. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, “gaur egun kabo bat eta bi laguntzaile daude. Asmoa da heldu den urtean beste bi plaza betetzea”. Alkateak azaldu digunez, “7 edo 8 kideko Udaltzaingoa izatea litzateke asmoa, goizez eta arratsalde zerbiztu egokia emateko”. Gainera, aldi baterako Berdintasun, Gazteria eta Kirol sailtarako administrazio-laguntzaile bat kontratazea onartu zen. Azken postu hori lanaldi erdikoa izanen da.

Loteriak milioi bat euro utzi zuen Ziordin larunbatean

Urbasa tabernan saldutako 67.925 zenbakiarendako bigarren saria izan zen

ZIORDIA

Ana Otxoa Agirre amaren taberna-jatetxean lanean aritzen da Ana Belen Fernandez Otxoa eta berak azaldu digunez, “txartel batzuk bueltatu genituen, baina ziur 40 saldu direla, bakarren batzuk gehiago izan daitezke”. Loteria txartel bakoitzaren jabeak 25.000 euro jasoko ditu. Fernandezek azaldu digunez, saria oso banatuta dago herritarren eta eguneroko menua jatera joaten diren langileen artean. “Badira aurreko batean kinto ospakizuna egin zuten 15 lagun. Hiru txartel erosi zituztenak eta geroztik jokatzeko egon dira. Ehiztari talde bat badago ere. Edo kartetara jolastera etorri eta erosi dutenak, erdibana edo txartel osoa dutenak. Olaztiarrak daude, Iruñekoak eta Gasteizkoak”. Aurretik sekula ez dute halako saririk banatu, jokaturakoa edo 6 eurorengatik 18 jaso izan dute gehienez.



Bizi! lelopean, desfile koloretsua izan zen aurreko ostiralean lortian ikusitakoa.

Oinez BIZI! aurkezpen eta desfile arrakastatsua

Iñigo Aritzako ikasle, irakasle, guraso, aiton-amona eta herriko kirol eta kultur taldeek parte hartu zuten

ALTSASU

Iñigo Aritzako ikastolak Nafarroa Oinez 2018 festaren aurkezpena egin zuen ostiralean, Altsasuko Iortia Kultur Gunean, bitan. Aritz Leoz ikasle ohiak egin zituen aurkezpen lanak, alboan Nafarroako Pertsona Gorren Familien Eunate elkarteko kide bat zuela. Izan ere, 2018ko Nafarroa Oinez inklusiboa egitea da erronka, eta, horregatik, zeinuen hizkuntza presente izan zen Iortia aurkezpenean.

Bizi: bi eskuak bularrera

Aurkeztu baino lehen, aurretik ikastolak antolatutako 3 Oinezak ekarri ziren gogora: 1981ekoa, 1993ekoa eta 2005ekoa. Iñigo Aritzako irakasleak, gurasoak, ikasle ohiak eta ikasleek hartu zuten parte eta garai hartako pasadizoak ekarri zituzten gogora, orduko Oinezeko logoen irudiekin batera. Ondoren, Oi-

nezaren lekukoa Lesakatik mendiz mendi Altsasuraino nola iritsi zen ikusi ahal izan zen pantailan, eta, azkenik, ikasle batzuk Iortia oholtza gainera ekarri zuten aipatu lekukoa. Orduan erakutsi zuten 2018ko Oinezaren leloa eta logoa: *Bizi*. Eta “bizi” zeinu hizkuntzan nola esaten den galdetu zion Leozek Eunate elkarteko kideari eta ziurrenik hemendik aurrera ezaguna eta birala egingo den keinua ikasi zuten Iortian bildutakoak: bi eskuak itxita, bularrera gerturatzeko keinua.

Ondoren, dagoeneko Egubera kalean zabalik dagoen Oinez dendan dagoen materiala erakusteko pasarela bilakatu zen Iortia. Desfile jendetsu eta koloretsuan, herriko kirol eta kultur taldeek hartu zuten parte, ikastolako ikasle, irakasle, guraso, aiton-amona eta besterekin batera.

Lanen ondoren, Unanuko elizako dorrea konponduta

Iraila akaberatik eta lastaila erdialdera arte Unanuko elizako dorretxea aldamiok jantzita egon zen. Haren oinarriak mugitu egiten dira eta dorreko paretetan 2 cm-ko zabalera zuten zartatuak agertu ziren. Momentuz ez zen egoera arriskutsua, baina kaltea handiagoa izan aurretik dorrea konpontzea erabaki zuen Unanuko parrokiak. Bere eta go-

tzaingoaren diruarekin enpresa bat kontratatu eta hark egin zituen lanak. Unanuko Kontzejuak 1.800 euro bideratu ditu dorrean tximistorratza jartzeko. Apezpikutzako arkitektoaren eskutan dago oraindik dorrearen egoera eta haren oinarriko mugimenduei eusteko kontrahormak jartzea egokia den edo ez aztertzen ari da.

Bestetik, herrira joaten direnek autoa non-nahi ez aparkatzeko toki desegokiak direnak marra horiz margotu dituzte.



Etxean hautsita zituztenak elkarrekin konpontzen, kafe usaiaren laguntzaz.

Etzeko gauzen konponbiderako hitzordua jarrita

Azaroko asteartean Gure Etxea eraikineko beheko solairua erreparazio tailerra bihurtzen da

ALTSASU

Asteartean Maria Blanca larru zati bat mozten harrapatu genuen: “semearen moto zahar baten aulkia konpontzeko da. Aulkiko larrua hautsita dago eta piezak askatzen ari naiz patrioiak egin eta gero larru berriarekin motorraren aulkia-arendako azal berria egiteko. Pentsa dut patrioiatik ateratako piezak josi egin beharko direla. Ea zer dioten irakasleek!” Joan den urteko esperientziarekin “oso pozik” gelditu zen.

Beste mahai batean dagoen Betsaren ogia egiteko makina izorratua dago. “Ea arazoa zein den opatzen dugun eta konpontzen dugun, makina berezia da eta ez da hain erraz ordezkatzeko”.

Aldamenean, Victor eta Idoia bi ogi xigorgailu darabilte esku artean. Baten “malgukia eutsi behar dion pieza gastatuta dago eta nola eusten dugun aztertzen ari gara” esan digu Victorrek. Helburua ogia xigorgailu barruan eustea da. Egin daitezkeen molaketak aipatzen dizkiote elkarri. Idoiak bigarren etxetresnaren diagnostia eman digu: “bakarrik alde bat funtzionatzen du eta ogiari buelta eman behar zaio. Etxean nituen eta baten malgukia hartuta bestea konpondu zitekeela uste nuen eta, horregatik, etorri naiz. Ea bat behintzat konpontzea lortzen dugun. Mesede ederra. Eta naturari! Bota beharrean beste tartetxo bat irauten dute”. Victor maiz joaten da eta eskarmentua du. Aurreko asteartean

mikrouhin labea eta iratzargailua konpondu zituen.

Saioa ondoko mahaiari dago mahaitxo txiki batekin: “oso itsusia zen eta birmoldatzeko eta edertzeko ekarri dut”. Estreinako aldia du eta haiek irakatsi bezala ari da mahaiari bigarren bizia ematen.

Bizkarra tente mantentzeko belaunak jartzeko duen egurrezko aulki baten aurrean opatu dugu Beatriz. Aldamenean, zerra, zulagailua, barautsak, allen giltzak, iltzeak eta beste dituen aldamenean. “Aulkiko torlojuak gaizki zeuden. Nire anaia institutuan zegoela asko erabiltzen zuten. Zahartuta gelditu zen eta berritzeko erabiliko dut saioa”. Estreinako aldia du eta konpontzeko gauza gehiago dituela aitortu digu Beatrizek.

Kafe konpondu

Guztiak ere Kafe Konpondu ekimeneko erabiltzaileak dira. Azaroko asteartean, 18:00etatik 20:00etara, Gure Etxea eraikineko beheko solairutik pasatzen direnek aukera bera izanen dute. Han izanen dira Javi, Luis, Victor edo beste bakarren bat eramandako trastea konpontzeko laguntza emanen dutenak. Luisek argiro azaldu digu: “beraiek konponduko dute. Gu laguntzeko gaude. Tresneria uzten diegu, nola egin esaten diegu. Gurea akonpainamendua da”. Pertsonen arteko harremanak sortu eta etxean hautsita dauden gauzei bigarren aukera bat ematea da ekimenaren helburua.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI. gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 17

ALTSASU Zentzumenen ibilaldiak ginkana eta murala, dastatze beroa izanen dira Gozamenze programako saio horretan. 17:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Ni neu Galtzeta albumaren aurkezpena, Joana Zigandak eta Iker Uribek. 18:15ean, Pikuxar euskal txoan.

ALTSASU Kirmen Uribe idazlearekin literatur solasaldia antolatu dute Sakanako sei liburutegik. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

ETXARRI ARANATZ Txinerratxo antzezlanaren jokatu dute etxarriar talde batek, Jose Luis Erdoziak herriaren historian oinarrituta egindakoa. 22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU La reina Victoria y Abdul filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 18

IRURTZUN Hiriberritik Itxasperrirainoko ibilbidea Iturraskarriko bideetan barna

Mikel Razkinek gidatuta. 10:00etan, Pikuxarren.

ALTSASU Ospa mugimenduaren batzar irekia. 10:30ean, Gure Etxea eraikinean.

ITURMENDI Eztanda Irratiaren 18. urteurren festa. 11:30etik aurrera, herrian.

ETXARRI ARANATZ Orain presoak! Ielopen abenduaren 9an Parisen eginen den mobilizazioa aurkeztuko dute Mixel Berhokoirgoien bakegileak, Eneka Maiz Etxarriko alkateak, senideek eta Sakanako Sarek. 12:00etan, Etxarriko kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Titirikontu kontari ikuskizuna ekarriko du Gorakada taldeak. 17:30etan, kultur etxean.

ALTSASU Body art, tattoo tailerra. 18:00etan Intxostiapunta gazte gunean.

IHABAR Bertso saio musikatua Oskar Estangarekin eta Oihane Iguaranekin. Ondoren, afaria. 19:00etan, kontzeju-etxeke bajejan.

LAKUNTZA Mexikoko lurrikarak kaltetuak laguntzeko elkartasun jaialdia antolatu du Pakita Anduezak. Zuzeneko musika, erakusketa, liburu salmenta, egoerari buruzko informazioa. 18:30ean, kultur etxean.

OLATZAGUTIA 1936. La verdad no prescribe hitzaldia emanen du Balbino Garcia de Albizuk, ¿Que hicimos aquí con el 36? liburuaren egilea. 19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Hamlet, Teatro del Veneno taldeak. 20:00etan, lortia kultur gunean.

ITURMENDI Garabatos taldearen kontzertua eta Guri5 taldearen erromeria. 23:00etan, gaztebtxean.

IGANDEA 19

SAKANA Zaldierna eta Valgañon arteko mendi ibilbidea eginen dute Sakanako Mendigoizaleak taldeko kideek. 06:00etan, Irurtzundik abiatuko da autobusa.

ALTSASU Altsasutik Arlezera 53 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 08:30ean klubeko bajejan, 9:15ean Bioitza kanpinean.

ALTSASU Extremadurako folklore jaialdia eskainiko du Raices y brotes talde iruindarrak La Encinak antolatuta. 12:30etan, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Ikusi makusi. 16:30etan eta 18:30etan, kultur etxean.

ALTSASU Lego ninjago filmaren emanaldia, euskaraz. 17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Good bye Berlin filmaren emanaldia. 17:30etan eta 19:40etan, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Txinerratxo antzezlanaren jokatu dute etxarriar talde batek. 18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU La reina Victoria y Abdul filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.



ALTSASU Emakume modaren 100 urte.

Emakume janzkeraren garapena erakusten duen erakusketa prestatu du Iruñeko erreinuko etnografia museoak. **Abenduaren 3ra arte** astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA 1936. Zer gertatu zen Olaztin?

Erakusketa 1936an eta ondorengo urteetan olaztiarrek jasandako errepresioari buruzko hainbat dokumentu ikusgai izanen dira. **Azaroaren 18tik 30era, astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara, eta domeketan, 12:30etik 14:00etara, kultur etxeke 1. pisuko 2. gelan.**

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

informazio batzarra antolatu du Mank-ek. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ASTEARTEA 21

ALTSASU Badator 5. edukiontzia eta horri buruzko informazio batzarra antolatu du Mank-ek. 19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 23

ALTSASU Badator 5. edukiontzia eta horri buruzko informazio batzarra antolatu du Mank-ek. 19:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ASTEAZKENA 22

ALTSASU Badator 5. edukiontzia eta horri buruzko

ALTSASU La montaña entre nosotros filmaren emanaldia. 19:00etan, lortia kultur gunean.

ZORION AGURRAK



Zorionak Artzai! 10 urte gaur betetzen dituzu!! Urte askotarako segi orain bezain jator eta maitagarria izaten. Muxuak familia guztiaren partetik



Maria Pilar eta Anastasio Lazkoz Zorionak ama eta tío... azaroaren 22yzen zuben egune da. Itzekuen partes, muxu handi bet!!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK

Sakanako 1957ko kintoak. 60 urte bete dituztela ospatzeko bazkaltzera elkartuko dira azaroaren 25ean Etxarri Aranazko Iturri Eder jate-bean. 1957an jaiotakoak joan daitezke bazkarira. Haiekin batera laguntzaileen bat eraman dezakete. Izena jatebean bertan eman daiteke. Bestela, zuzenean Laboral kutxan 57ko kintoak-Arrate Iturriaren izenean zabalduko kontu korrontean egin daiteke diru sartzera, izen-abizenak gaineratuz. 60 euro balio du. Hilaren 20ra arte eman daiteke izena.

Odol-emaileak. Uharre Arakil: Abenduak 17, 17:00-20:30

Haurren Ioa. Kafe tertulia Juanjo Kintela-ren eskutik. Haur psikologo, psikomotrozista eta aholkulari pedagogikoa. Azaroak 29, 17:00etan, hitzaldi irekia. Kattuka haur eskola, 948 467 009, info@kattuka.com. Arbizu

Idazlearekin hizketan. Kirmen Uribe idazlea azaroaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da. Arbizu, Etxarri Aranatz, Urdiain, Altsasu, Olazagutia eta Ziordiko liburutegiek antolatuta eta Liburutegi Zerbitzuak antolatuta.

Etxarri Aranazko irakurle taldea. Hurrengo hitzordua: abenduaren 14an izanen da, ostegunean, 19:00etan liburutegian. Mari Luz Estebanen *Feminismoa eta politikaren eraldaketak* liburua ariko dira hizketan.

Mintzakide proiektua. Egon-kortzek o denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzin: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Katalaneko mintzataldea. Katalanez ikasi eta/edo hitz egiteko interesa duzu? Sakanan mintzataldea sortu nahi dugu. Jarri harremanetan gurekin (629 486 123 Monika-Arbizu)

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkartek langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hila-beteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasan proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakarra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nafarroako Elikgaiaren Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035

0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariak aldeko abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrak 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika marxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

OPARITUTAKOAK

Txakur bat oparitzen da, ertaina eta lasaia. Informazio gehiagorako deitu 629 885 429 telefonora.

www.iragarkilaburak.com



UTZITAKOA

Hamlet eguneratua ezagutzeko aukera

"Izan ala ez izan" bakarrizketa ezaguneko antzezlanaren larunbatean, 20:00etan, Iortian

ALTSASU

Tarima Beltza amateur antzerki taldeari esker William Shakespeareren *Hamlet, Dinamarkako printzea* antzezlanaren ikusteko aukera izanen da. Altsasuko antzerki taldeekin hasi zen elkartrukeak egiten.

Te@treves zikloa haien emandiekin osatu dute udaberriaren. Aurten ezin izan da egin eta urtean zehar banatu dituzte emandiek. Antolatzen duten bigarrena da biharkoa. Bestalde, duela bi urte beste erkidegoetako taldeekin harremanetan hasi ziren eta, horrela, Valladolideko Teatro del Veneno taldearekin harremanetan jartzea lortu zuten.

Esan bezala, Shakespeareren lan ezagunena ekarriko du talde gaztelarrak. "Baina gaur egunera egokitu dute obra. Eszenarazte ausarta egin dute. Zuzeneko musika eta guzti", azaldu digu Juan Manuel Herrero, Tarima Beltzakoak. Haren kide Murtze Herrero gaineratu duenez, "amateur antzerkiak profesionalak baino lan arriskatuagoak egiten ditu". Teatro del Venenok Abadiñon obra hilaren 4an eman zuen eta handik "erreferentzia onak" jaso dituztela azaldu digute. 2007tik ari dira eta 8 muntaiak dituzte.



SAREA

Bertsotatuak Ihabarren

Arakilgo Udako Kultura Zerbitzuak antolatuta bertso saio musikatu izanen da Ihabarren bihar, 19:00etan. Kontzejuek Oskar Estanga eta Oihane Iguaran izanen dira. Azken hori Bertsolari Txapelketa Nagusian buru belarri sartuta dago. Musika lagun bertsoaren ariko dira biak. Saioa despiduta, bajera afaria izanen da, 25 lagunek eman dute izena.



Bost poetika Uhartan

Donibane jubilatuta elkarteko aretoa jende bete zen igandean arratsaldean poesia errezitaldia entzuteko. Mikel Auzmendik gitarra jotzen zuen bitartean, txandaka, Mercedes Viñuela, Cristina Liso, Inma Biurrun, Blanca Arrizabalaga eta Marisa Barasoain errezitatzen aritu ziren. Joandakoak pozik gelditu ziren. Ondorengo otamenean poesiez hitz egin zuten.


EZKONTZAK

- **Ignacio Mallén Lafuente eta Teresa Beramendi Garzandia,** urriaren 31n Iruztunen
- **Juan Antonio Guerrero eta Zuriñe Goikoetxea,** azaroaren 11n Urdiainen

HERIOTZAK

- **Gregorio Senosiain Ortiz,** azaroaren 11n Izurdiagan

Nola berotzen duzu egun hotzetan etxea?



40 tanatorios
IRACHE
aniversario
Tanatorioak: Altsasu – Iruztun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- 📌 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es

PREFERENTE MAILA

| EMAITZAK | |
|--|--------------------|
| Lagun Artea – Amigó | 0-0 |
| Etxarri Aranatz – Castillo de Tiebas | 0-1 |
| SAILKAPENA | |
| 1. Infanzones | 20 |
| 12. Lagun Artea | 9 |
| 15. Etxarri Aranatz | 5 |
| PARTIDUAK | |
| LARUNBATEAN | |
| 15:30 Castillo de Tiebas – Lagun Artea | <i>Iturrrondon</i> |
| 16:00 Berriain – Etxarri Aranatz | <i>Berriainen</i> |

Erdipurdi jarraitzen dute preferente mailan dabilen gure bi taldeek. Lakuntzan, Amigó eta Lagun Artea aukera oso argiak izan zituzten, baina ez zituzten gauzatu eta husnako berdinketarekin despeditu zen partida. Bestalde, San Donato zelaian Etxarri Aranatz eta Castillo de Tiebas parez parez aritu ziren. Etxarri aukerak izan zituen, baina ez zituen gauzatu. Bigarren zatiko 60. minutuan soilik asistentek ikusi zuen gol bat seinalatu zuen arbitroak, eta gol horri esker garaipena eta hiru puntuak lortu zituen Castillo de Tiebasek. Sailkapeneko behealdean daude gure bi taldeak, puntu faltan. Ea asteburuan zortea alde duten biek.

ERREGIONAL MAILA

| EMAITZAK | |
|-----------------------|---------------|
| Altsasu – Lekun | 4-1 |
| SAILKAPENA | |
| 1. Lagunak B | 19 |
| 2. Altsasu | 16 |
| PARTIDUAK | |
| LARUNBATEAN | |
| 16:00 Amaya – Altsasu | <i>Amayan</i> |

Ormazabalek Altsasu aurreratu zuen eta nahiz eta Amayak berdindu, Pitik, Javi Guisadok eta Imanol Martinezek sartutako golekin, gol festa ederra ospatu zuten Dantzalekun.

EMAKUMEEN ERREG.


| EMAITZAK | |
|----------------------------------|--------------------|
| Universidad de Navarra – Altsasu | 2-0 |
| SAILKAPENA | |
| 1. Berriozar | 30 |
| 12. Altsasu | 11 |
| PARTIDUAK | |
| IGANDEAN | |
| 15:30 Altsasu – Lagunak | <i>Dantzalekun</i> |

Universidad de Navarra taldearen kontra galdu eta gero, Altsasu sailkapenean 12.a da. Igandean sailkapenean hirugarrena den Barañango Lagunak taldea hartuko dute Dantzalekun. Ea gure neskek sorpresa ematen duten.

Pello Garcia eta Migel Ulaiar, zilarrezkoak

KIROLDEGIA Nafarroako Zilarrezko Domina jasoko dute bi sakandarrek abenduaren 1ean Nafarroako Jauregian, 30 urte baino gehiago Arakilen futbola sustatzeagatik (Pello Garcia) eta mendizaletasunean egindako lanagatik (Migel Ulaiar)

Nafarroako Gobernuak zehaztu du nork jasoko dituen Nafarroako Foru Komunitateko Kirolaren 2017ko Urrezko eta Zilarrezko Dominak. Urrezko Dominei dagokionez, Abel Barriola Ezkurrak eta Juan Martinez de Irujo Goñik jasoko dituzte urrezko dominak, "pilotari profesional gisa aritu diren urteetan pilotaren munduari egin dioten ekarpen handiagatik". Horretaz gain, Nafarroako Gobernuak Zilarrezko 24 Domina emango dizkie kirolaren munduan lan egin duten 24 pertsoneri, "25 urtez baino gehiagoz zuzendaritza-lanen edo lan teknikoan bidez kirola sus-



Ezkerrean, Pello Garcia eta eskuinean, Migel Ulaiar, Korrikan.



Errege Kopatik kanpo geratu da Osasuna Magna

ARETO FUTBOLA Movistar Interrek 3 eta 2 irabazi zion, luzapenean. Gaur Catgas taldea hartuko dute berdeek

Osasuna Magnak Errege Kopari agur esan behar izan dio, asteartean Inter Movistar taldearen kontra final laurdenetako luzapenean 3 eta 2 galdu eta gero. Imanol Arregiren mutilek ongi jokatu zuten eta finalerdietara pasatzeko zorian egon ziren.

Puntako bi taldeen arteko partida lehiatua izan zen, indar eta bizitasun handikoa. Osasuna Magna bikain hasi zen eta Bynhok bigarren minuturako lehen gola sartu zuen. Atsedaldia baino lehen, Bynhok bigarrena sartu zuen. Bigarren zatian partidari buelta ematera atera ziren Movistar Interrekoak. Bina berdindu zuten eta horrela bukatu zen partida. Hortaz, 3 minutuko bi tarteko luzapenari ekin zioten bi taldeek.

Polemika
Luzapenean bi taldeek atezain-jokalarari formula erabili zuten. Erasoak bata bestearen atzetik



Barcelonarekin hiruna berdindu zuten.

egon ziren. Bukaera aldera iritsi zen polemika: Bynhoren protesta bat txartel horiarekin zigortu zuen arbitroak eta, bigarrena zenez, aldageletara joan behar izan zuen Osasuna Magnako jokalaririk. Erabakigarriak ziren azken minutuak gizon bat

tatzeko egin duten guztiagatik". Tartean daude bi sakandar: Pello Garcia Aizpun eta Migel Ulaiar Mendiola.

Aipatu sariak abenduaren 1ean banatuko dira, arratsaldean, Nafarroako Jauregian, 2017ko Nafarroaren Eguna ospatzeko antolatu diren ekitaldien barruan.

Zilarrezko sakandarrak

Nafarroako Gobernuak Komunitateko Kirolaren zilarrezko domina jasoko dutenen artean Pello Garcia arakildarra eta Migel Ulaiar etxarriarra daude. Pello Garcia Aizpunek 30 urte baino gehiago daramatza Arakilen futbola sustatzen, Zaldia taldean eta Eloko Higa Trofeoan edo Elomendiko Txapelketan parte hartzen eta laguntzen. Bestalde, Migel Ulaiar Mendiola zilarrezko domina jasoko du, 30 urtez baino gehiagoz Sakanan mendizaletasuna sustatu duelako, Sakanako Mendizaleak elkartean eta Etxarri Aranatzko Udaberri eta Larrañeta elkarrekin.

Merezitako dominak, zalan-tzarik gabe.

gutxiagorekin jokatu zuten berdeek, eta nahiz eta hasieran ongi eutsi, partidarako 1:39 minuturen faltan Movistar Interrek garaipenaren gola sartu zuen. Pena handiz, Errege Kopatik kanpo geratu ziren nafarrak. Nolanahi ere, itxura bikaina eman zuten eta talde garrantzitsuenen maila berberean jokatu dezaketela erakutsi zuten.

Ligan Catgas hartuko dute gaur Iruñean

Ligan, bi partida jarraian galdu ondoren, aurreko ostiralean Osasuna Magnak hiruna berdindu zuen Barcelona Lassa talde ahaltsuaren kontra. Partida ia guztian atzetik ibili ziren Imanol Arregiren mutilek, baina 3 eta 1 galtzetik hiruna berdintzea lortu zuten eta Barcelona irabazteko zorian egon ziren.

Sailkapenean Movistar Inter da liderra (31 puntu), Barcelona bigarrena (28 puntu) eta Osasuna Magna seigarrena da (18 puntu). Gaur, ostiralean, 20:30ean, Catgas Energia taldearen kontra ariko dira berdeak Anaitasuna pabilioian, 20:30ean hasiko den partidaren. Ea hiru puntuak Iruñean geratzen diren.

68 sakandarren erronka

ATLETISMOA Behobia eta Donostia lotzen dituen lasterketan aritu ziren sakandarren artean Egoitz Karrion irurtzundarra (1:15:30) eta Erkuden San Martin etxarriarra (1:31:29) izan ziren azkarrenak

Korrikalarien festa handia izan zen igandean jokaturako 53. Behobia-Donostia. Euririk gabe, korrika egiteko eguraldi elegantea zuten aurretik Irunetik atera ziren 25.486 korrikalariak. Eliteen mailan borroka handia izan zen eta, azkenean, Carles Castillejo (1:00:39) eta Aroa Merino (1:11:05) izan ziren txapeldunak.

Korrikalarien artean, 1.406 nafarrek lortu zuten proba deseditzea, haien artean, 68 sakandarrek, 54 gizonezko eta 14 emakumezko. Nafarren artean Mikel Etxamendi (1:09:20) eta

Leticia Acereda (1:20:47) izan ziren azkarrenak. Sakandarren artean, gizonezkoetan Egoitz Karrion irurtzundarra gailendu zen, helmugara 297. postuan sartuta (1:15:30) eta emakumezkoetan, berriz, Erkuden San Martin etxarriarra, helmugan 4.103.a (1:31:29).

Merceroren 31 Behobiak

Aipatzekoa da Joxemari Mercero unanuarra. 78 urterekin bere 31. Behobia-Donostia osatzea lortu zuen. "Gorputzak ahal duenera arte" korrikan jarrai-

tuko duela onartu zuen unanuarrrak. "Urtero gehiago disfrutatzen dut" azaldu zuen. Gaineratu zuenez, erdi lesionatua dabil baina bere familiak ibilbide osoan emandako laguntzari esker, helmugara "oso ongi" iritsi zela.

78 URTEREKIN, URTERO GEHIAGO DISFRUTATZEN DUELA AZALDU ZUEN MERCEROK



Milaka korrikalari hartu zuten parte Behobia-Donostian. FORTUNA KIROL ELKARTEA

Sakandarrak Behobia-Donostian (20 km)

Antolakuntzaren datu ofizialak:

Gizonak

| | |
|-------------------------------------|---------|
| 1. Carles Castillejo (Viladecans): | 1:00:39 |
| 297. Egoitz Karrion (Irum): | 1:15:30 |
| 381. Alatz Agirre (Arb): | 1:16:40 |
| 418. Iñaki Azkona (Irum): | 1:17:02 |
| 648. Aritz Munarriz (Etx): | 1:19:05 |
| 735. Alfredo Larraburu (Irum): | 1:19:35 |
| 780. Mikel Satrustegi (Arru): | 1:19:54 |
| 918. Alberto del Rio (Alts): | 1:20:51 |
| 1.065. Fran Araña (Arb): | 1:21:46 |
| 1.077. Iñaki Romero (Alts): | 1:21:50 |
| 1.243. J. Javier Maiza (Etx): | 1:22:41 |
| 1.255. Gaizka Diaz de Garaio (Bak): | 1:22:44 |
| 1.349. Aritz Etxeberria (Alts): | 1:23:12 |
| 1.430. Asier Estarriaga (Etx): | 1:23:37 |
| 1.635. Ioseba Iza (Arb): | 1:24:28 |
| 1.795. Alejandro Pain (Alts): | 1:25:03 |
| 2.213. Pedro Jose Rodriguez (Irañ): | 1:26:42 |
| 2.256. David Mutiloa (Irum): | 1:26:51 |
| 2.616. Asier Palacios (Alts): | 1:27:55 |
| 2.620. Asier Leiza (Arb): | 1:27:56 |
| 3.025. Luis Areta (Lak): | 1:28:58 |
| 3.472. Jon Ander Fdez (Alts): | 1:29:56 |
| 3.774. Iñaki Paniagua (Alts): | 1:30:43 |
| 3.944. Kaxi Estarriaga (Etx): | 1:31:04 |

| | |
|-------------------------------------|---------|
| 3.977. Imanol Guerrero (Alts): | 1:31:10 |
| 4.127. Mikel Lopez (Alts): | 1:31:31 |
| 4.168. Carlos Manero (Alts): | 1:31:35 |
| 4.211. Xabier Zabalza (Arb): | 1:31:43 |
| 4.287. Santi Agirre (Iturm): | 1:31:55 |
| 4.400. Jota Rekalde (Irum): | 1:32:12 |
| 4.433. Ruben Cantero (Alts): | 1:32:17 |
| 4.436. Gorka Perianez (Alts): | 1:32:17 |
| 4.513. Juan Pedro Ariz (Bak): | 1:32:27 |
| 5.416. Eduard Casanovas (Irum): | 1:34:27 |
| 5.498. Victor Isturiz (Irum): | 1:34:38 |
| 6.541. Juankar Mogollon (Irum): | 1:36:37 |
| 6.757. Koldo Isturiz (Irum): | 1:37:02 |
| 7.722. Iban Martin (Arb): | 1:38:37 |
| 8.130. Juantxo Azurmendi (Alts): | 1:39:15 |
| 8.624. Iñaki Mauleon (Etx): | 1:39:55 |
| 9.912. Alberto Agirre (Alts): | 1:41:58 |
| 11.820. Raul Mendoza (Zion): | 1:45:05 |
| 12.882. Mikel Tainta (Alts): | 1:46:58 |
| 14.251. Peio Larraza (Alts): | 1:49:07 |
| 14.707. Alvaro Rekondo (Lak): | 1:49:51 |
| 15.946. Ruben Erbiti (Egiar): | 1:52:09 |
| 16.294. Joxe Mari Mercero (Unanu): | 1:52:44 |
| 16.785. Raul Moro (Etx): | 1:53:39 |
| 16.887. Jose Ignazio Reparaz (Arb): | 1:53:50 |

| | |
|--------------------------------------|---------|
| 17.434. Aitor Etxaniz (Alts): | 1:54:54 |
| 18.030. Aitor Beltza (Etx): | 1:56:00 |
| 18.259. Ignacio Zapirain (Alts): | 1:56:27 |
| 19.874. Jose Antonio Augusto (Alts): | 1:59:47 |
| 23.024. Juan Migel Flores (Arb): | 2:12:00 |
| *Egoi Martinez deskalifikatuta | |

Emakumeak

| | |
|----------------------------------|---------|
| 77. Aroa Merino (Arrecife): | 1:11:05 |
| 4.103. Erkuden San Martin (Etx): | 1:31:29 |
| 5.836. Maitane Txueka (Arb): | 1:35:20 |
| 5.888. Maider Iragi (Irum): | 1:35:27 |
| 7.882. Rakel Sanchez (Etx): | 1:38:52 |
| 8.151. Marian Ijurre (Arb): | 1:39:17 |
| 9.069. Maria Goikoetxea (Etx): | 1:40:40 |
| 12.596. Ainhoa Markinez (Olaz): | 1:46:30 |
| 13.438. Mari Gwen Davies (Urd): | 1:47:51 |
| 14.246. Bea Ligerio (Alts): | 1:49:06 |
| 16.775. Amaia Benjumea (Etx): | 1:53:38 |
| 19.522. Laura Bergera (Arru): | 1:59:00 |
| 21.788. Eider Carrion (Irum): | 2:05:59 |
| 22.784. Belen Mendoza (Alts): | 2:10:41 |
| 23.043. Mirian Palacios (Arb): | 2:12:08 |



Joxemari Mercero helmugan, beste korrikalari batekin. JAVIER BERGASA

Iñigo Aritza Txapelketan, 5. jardunaldia igandean

PILOTA Igandean, 16:30ean, 5. jardunaldia hartuko du Iñigo Aritza ikastolako frontoiak

. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara bitarteko neska-mutilek parte hartzen dute txapelketan eta igandean 5. jardunaldia jokatu da ikastolako frontoian, 16:30ean.

Txapelketako finalak abenduaren 10ean jokatu dira.

Ikastolako igandeko partidak

LH3:

Urko – Ioar
Kimetz – Aratz

LH4:

Inhar – Mikel
Beñat – Aiora
Asier – Alejandro
Eñaut – Eneko
Aser – Aiora
(atzeratutakoa)

LH5:

Haizea – Xabier
June – Aimar

LH6:

Peru – Asier

DBH1:

Aimar – Iker

DBH2:

Irati – Ion
Olatz – Aimar

DBH3:

Oier – Ekhi
Aitor – Inar



862 sinadura Altsasun frontoi txikia eskatzeko

PILOTA Altsasuko pilotazale, kirol talde, elkarte eta partikularrek jaso dituzte sinadurak eta Altsasuko Udalarari aurkeztu dizkiote. "Gure tradizio pilotazalea" berreskuratu nahi dutela diote eta frontoi txikia edo frontballak egitea eskatu dute

Altsasuko pilotazaleek, kirol talde eta elkarteek eta partikularrek Altsasuko udalarari pilota jokoa sustatzeko eskabidea egin diote. Zehazki, Altsasun frontoi txikia egitea eskatu diote Udalarari, edo, bestela, frontball paretak edo kantxak jaso ditzala, pilota sustatzeko. Guztira 862 sinadura bildu zituzten, eskabidearekin batera Altsasuko Udalean aurkeztu dituztenak.

Eskarian jasotzen denez, "gazteek eta haurrek pilotan aritzeko toki publiko dohain eta irekiak ez daude". Lehen, Altsasun, elizako portikoko paretetan, ondoko paretetan, plazako frontoian, Burunda frontoian –goizez eta arratsalde zabalik egoten zen eta hainbat tokitan jokatzeko. Egun, toki asko itxita daude.

Frontoi txikia edo frontballa

Horregatik guztiagatik eta neska-mutikoengan pilota sustatzeko, sinatzaileek Altsasuko udalarari eskatu diote, ahal bada,



Pilotariak lanean Burunda pilotalekuan.

mini-frontoia edo frontoi txikiak egiteko, edo, bestela, frontball paretak edo kantxak jar ditzatela. Izan ere, egun Frontball modalitatea puntan dago. Pareta bakarrean jokatzeko da, txapa edo marra horizontal bat margotua

duena, aintzinako frontoiak bezala. Pareta hauen beste aldearokodromoa egiteko probestu ahalko litzatekeela diote.

Tradizio pilotazalea berreskuratu

Sinatzaileen irudiko, Altsasun frontball paretak jasotzeko toki aproposak daude, esaterako, Otadiko Kristo Deuna ermitaren eta Txioika ikastolaren aurrean, Zelandiko eskoletako patioan, Txirinbulo Haur Eskolan, Institutuko patioan... "Uste dugu gure jokoa den pilota sustatzea urgentziazkoa dela, halako instalaziorik gabe zaletasunak desagertzera joko duelako. Ez gaitu inolako interes pertsonalik mugitzen; gure tradizio pilotazalea berreskuratu nahi dugu" azpimarratu dute. Sinatzaileek Sociedad Deportiva Alsasua, Pilotajauku kluba eta Nafarroako Pilota Federazioaren babesa dute. Altsasuko Udaletik azaldu dute Kirol Batzordeak eskaria aztertuko duela.

Olaetxea aurrera Nafarroako lau t'erdian

PILOTA Ansotegi, Ganboa eta Petriati Gazteen mailako Nafarroako Lau t'erditik kanpo daude

Nafarroako Gazteen mailako Lau t'erdiko Txapelketa-Guillermo Mazo Memorialean final zortzirenak jokatu dira. Asteartean, Etxarrenen, Etxarriko Gure Pilotako Ansotegi txapelketatik kanpo utzi zuen Umore Onako Aizkorbek eta Arbizuko Aldabideko Olaetxeak, aldiz, aurrera egin zuen Ardoi klubeko Barriola menpean hartu eta gero. Eta asteazkenean, Lekunberrin, gure pilotariak ez zuten zortea alde izan. Apezetxeak (Umora Ona) Ganboa (Oberena) txapelketatik kanpo utzi zuen eta Arribillagak (Ardoi) bidean utzi zuen Petriati (Aldabide).

Final zortzirenetako emaitzak

Asteartean, Etxarrenen

- Aizkorbe (Umora Ona) 18 – Ansotegi (Gure Pilota) 9
- Txoperena (Oberena) 18 – Roldan (Ardoi) 17
- Olaetxea (Aldabide) 18 – Barriola (Ardoi) 8
- Ariztegi (Txaruta) 18 – Agirre (Erreka) 14

Asteazkenean, Lekunberrin

- Apezetxea (Umora Ona) 18 – Ganboa (Oberena) 5
- Santamaria (Oberena) 15 – Maya (Esteribar) 18
- Telletxea (Erreka) 18 – Elzaurdia (Bortzirriak) 10
- Petriati (Aldabide) 5 – Arribillaga (Ardoi) 18



Igor Arrieta lehena Elorrioren

TXIRRINDULARITZA Igandean 42. Elorrioko Basqueland Ziklokrosa jokatu zen, Espainiako Koparako baliagarria. Kadeteen mailan Aralar klubeko Intersport Irabia taldeko Igor Arrieta lehia zuen eta lehena iritsi zen helmugara (24:01), Bicycletas Meta taldeko Alain Suarez bi segundo aterata (24:03).



MARTIN EARLY

Resano Euskal Herriko III. mailako txapelkunordea

AIZKORA Dorraokoa II. mailara igo da, Txapartegi, Corchero eta Pellejero aizkolariekin batera

Igandean jokatu zen, Aldatzen, Euskal Herriko III. Mailako Txapelketako finala. Sei aizkolarik txapelkun izatea eta mailaz igozea zuten jokoan: Jon Telletxeak (Beintza Labaien), Iban Resanok (Dorrao), Jokin Alkizalete (As-teasu), Asier Pellejero (Areso), Luis Mari Txapartegik (Gipuzkoa) eta Eloy Corcherok (Araia). Horretarako, hiru kanaerdiko eta bi 60 ontzako erdibitu behar zituzten.

Luis Mari Txapartegi izan zen azkarrena (13:18). Gipuzkoarrak 22 segundo atera zizkion Iban Resanori (13:40) eta Euskal Herriko III. mailako txapelkunordea dugu dorrobarrara. Eloy Corchero hirugarrena sailkatu zen (16:40.34) eta Asier Pellejero laugarrena (16:40.37). Aipatu lau aizkolariek mailaz igozea lortu zuten eta hurrengo urtean Euskal Herriko II. mailan ariko dira. Azkenik, Jokin Alkizalete bosgarrena izan zen (16:55) eta Jon Telletxea seigarrena (17:16).

MENDIA Sakanako Mendizaleak: igandean irteera

Sakanako Mendizaleak taldeak hilean behin mendi irteera bat antolatzen du, autobusez. Azaroko irteera igandean izanen da. Errioxa aldera joko dute gure mendizaleak. Zaldiarnatik aterata eta mendi ibilbide ederra burututa, Valgañonera iristea izango dute helburu.

Autobusa igandean goizeko 6:00etan abiatuko da Irurtzundik, eta Sakanako herrietan geldialdiak eginen ditu, izena eman duten mendizaleak jasotzeko. Atzo itxi zen izena emateko epea, baina norbait animatuz gero 639 117 631 telefonora hots egin daiteke, toki libreak badaude izena eman ahal izateko.

Beti-Gaztekoak nagusi Lakuntzako kanporaketan

SOKATIRA Nafarroako Sokatira Txapelketako Gizonezkoen 600 kiloetako eta Talde Mistoen 550 kiloetako txapelketen lehen jardunaldia larunbatean jokatu zen, Lakuntzan. Lesakarrak nagusitu ziren bi modalitateetan

Nafarroako 2017ko Sokatira Txapelketako saioa hartu zuen larunbatean Lakuntzak, Lakuntzako Pertza elkartearen bazkide egunaren barruan antolatutako ekitaldien barruan. Zehazki, bi txapelketako lehen jardunaldia jokatu zen, Nafarroako Sokatira Txapelketako Gizonezkoen 600 kiloko lehen jardunaldia eta talde mistoen 550 kiloko lehen jardunaldia. Frontoian bildutakoek puntako sokatiraz gozatzeko aukera izan zuten.

Gizonezkoetan lesakarrak onenak

Gizonezkoen 600 kilotan, 8 tira-tzailez osatutako hiru talde lehiatu ziren: Lesakako Beti-Gazte, Berriozar eta Antsoain. Lesakarrak izan ziren jaun eta jabe, tiraldi guztiak irabazi baitzituzten (3 puntu). Berriozarkoek ere maila polita eman zuten eta bigarrenak izan ziren (2 puntu) eta Antsoain izan zen hirugarrena (puntu bat).



Tiraldi ikusgarriak ikusteko aukera izan zen larunbatean Lakuntzan.

Talde mistoetan, gizonezkoak eta emakumezkoak

Gizonezkoek eta emakumezkoek osatutako talde mistoen 550 kilotan, lesakarrak ere izan ziren gailendu zirenak (5 puntu). Tiraldi guztiak irabazi zituzten. Berriozar A oso gertutik ibili

zen (4 puntu), Berriozar B hirugarrena izan zen (3 puntu), Antsoain B laugarrena sailkatu zen (2 puntu) eta Antsoain A bosgarrena (puntu bat).

Txapelketa larunbatean erabakiko da, Lesakak 2. jardunaldia hartuko baitu, 17:00etan.



Gorritarren erakustaldia

AIZKORA Larunbatean, Lakuntzako Pertza elkarte ospakizunen barruan, aizkora erronka izan zen. Jaime Gorriti eta Iker Gorriti semea, batetik, eta Juanjo Lopez Azpilikueta eta Eraso, bestetik. Enborra handiari bi

korte egin behar izan zizkieten. Lan luzea egin eta gero, azkenean, uharte arakildarrak gailendu ziren. Nonbait, errebantxa egiteko gogoaz azaldu zuten aizkolariek elkartean izandako bazkarian.



Beunza eta Audikana, podiumean.

Beunza eta Audikana Sakanako Kopako buru

ATLETISMOA Abenduaren 8an erabakiko da Kopa, Altsasuko Barricarteren Oroimenezko Lasterketan

Urriaren bukaeran Uhartea Arakilen jokatu zuten Sakanako XVII. Herri Lasterketa eta gero, horrela dago Sakanako XIV. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria: emakumezkoetan Izaskun Beunza da lehena, Ginesa Lopezen eta Leire Estarriagaren aurretik. Eta, gizonezkoetan, Raul Audikana doa buruan, Sergio Garcia de Eulateren eta Felix Benjumearen aurretik.

Bost lasterketek puntuatzen dute Kopan: Ziordiko Herri Krosak (maiatzak 20), Bakaiku-Iturmendiko XIV. Aitzkozar Herri Krosak (ekainak 10), Ergoienako XIV. Birak (irailak 23), Sakanako XVII. Herri Lasterketak (urriak 28) eta abenduaren 8an Altsasuko Zubeztia elkarteak antolatutako duen XXXVII. Barricarteren Oroimenezko Oinezko Lasterketak.

Sakanako 10 korrikalari hoberekin puntuatzen dute lasterketa bakoitzean, emakumezkoek eta gizonezkoek, eta 5 proba hauetatik gutxienez lauretan parte hartu beharko dute kopako saria jaso nahi badute. Irabazleek 80 euro jasoko dute Lasa Kirolak dendako kirol materiallean, bigarrenak 60 euro eta hirugarrenak 40 euro. Proba guztietan parte hartzen dutenen artean sari bat zozketatuko da.



Txinerratxo antzezlanak jokatu duen antzezle taldea.

Herri baten sorrera arakaturaz

Etxarriko historia, euskalkia, eta hitanoa, bereziki nabarmentzekoa, biltzen ditu asteburu honetan taularatuko den Txinerratxo antzezlanak. Etxarriarrak dira eszena-tokira igoko diren guztiak. Jose Luis Erdozia idazlearekin elkartu gara

Larraitx Amadoz Lazkano ETXARRI
Noiz hasi zineten antzerki obra honekin?

Duela hilabete bat eta erdi hasi ginen proiektu honekin. Duela bost urte Etxarri Aranatz herriaren sorreraren inguruko antzerki bat egin genuen, hori abiapuntu hartuta, bide beretik jarraitzeko ideia sortu zen. Lehen antzerki horren arrakasta ikusita beste zerbait egiteko aukera ikusi genuen. Herrian talde txo bat elkartu gara hau aurrera eramateko eta abentura honetan barneratu gara.

Zein gai jorratuko duzue antzerkian?
Lehen antzerki hartako gaiari tiraka atera da obraren muina, Etxarri Aranazko historiari guztiz lotuta dago, 1214. urtean kokatzen da. Beheko basoa izanen da eszena-toki gaineke ingurua, XIII. mendean Aranaz bailaran, hogeitahirren presentzia existitzen zela badakigu. Mende horretan, Etxarri Aranatzek oraindik ez zuen herri izaerarik, dorretxe bat eta eliza besterik ez zituen, herriaren sorrera 1.312an izan zen.

Zergatik garai hori?
Antzerkia herriaren sorrera baino ehun urte lehenago kokatzen da. Testuinguru gatazkatsua zen mende hura, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia Gaztelako Erreinuaren menpe zeuden. Sakana muga puntu garrantzitsua zen, eta etengabeko erasoak jasaten zituzten Aranazko haranean jauntxo eta Aguraingo agintarien

aldetik. Egoera horrek segurtasun eza handia sorrarazi zuen herritarrengan. Aipatu ditugun herri horiek, gutxi gorabehera badakigu non kokatzen ziren. Gaur egun, hogeitahirietatik zazpi geratzen dira soilik, Lakuntza barne. Herri berezi bat dago, Berrenarren, baina oraindik ez dakigu zehazki non kokatzen den. Berrenoako galtzada beheko basotik pasatzen zen, Lizarratik zetorren eta Urbanan barna Etxarri Aranatz aldera iristen zen, hemendik Bakaiku, Iturmendi eta Urdiain gurutzatuta Ataun aldera zihoan.

KULTUR ETXEAN EMANEN DUTE ANTZEZLANA: GAUR, 22:00ETAN, ETA IGANDEAN, 18:00ETAN

Beheko basoa hautatu duzue obra kokatzeko, leku berezia ezta?
Bai, oso leku berezia da. Aurten aipatu dudun Berrenoako galtzada berritzen egon dira, herriko jubilatuen artean egin da auzolanari esker. San Adrian

erromeria baita ere bertan ospatzen da, eta herrikoendako oso data berezia da, noski. Bestalde, gaur egun hain ezaguna egin den haritz zaharren ibilbidea ere hortxe kokatzen da. Hau guztia lotuta, garai hori oinarri harturik, historia bat egiteko testuinguru egokia iruditu zitzaidan.

Nor da Txinerratxo?

Antzerkiaren bigarren zatiko protagonista da eta obraren izenburua. Aurten Etxarri Aranazko Udalak erraldoiak berritu egin ditu, eta horietako bat Txinerratxo da. Pertsonaia mitologiko bati erreferentzia egiten dio, beheko suarekin harremana duena, haurrei beldurra sartzeko erabiltzen zen garai batean. Eta toponimiari dagokionez ere, Txinermuno izeneko dermio bat dugu. Antzerkiko Txinerratxo pertsonaia sorgin izaera izanen du, memoria historikoari keinu egiteko asmoarekin landutakoa da.

Zein estilo erabili duzue obra idazteko?

Dena Etxarriaren idatzita dago. Oso ezaugarri berezia dauka, izan ere, noketan eta toketan idatzi dut, hitanoa erabili dut. Gazteen artean geroz eta gutxiago hitz egiten da hiketan, eta honen bidez, ezagutza pixka bat zabaltzeko aukera izanen da. Prosa erabili dut testua idazteko, ez da antzerki erabat ortodoxoa, nolabait ere esateko. Hitza eta irudia uztartuko ditugu obra honetan, pantaila batzuk jarriko ditugu eszena-tokian. Antzezleekin hainbat lan egin ditugu obraren aurretik, beheko basoan irudiak grabatzen egon gara jantziak soinean dituztela. Amaia Erdoziak grabazio guztiak egin ditu eta Oskar Korroza edizio lanetan aritu da. Obraren hari pantailen bidez jarraituko da, eta noizean behin antzezlearen agerraldiak egingen dira eszena-tokian.

Herriko aktoreek parte hartuko dute?

Bai, hori da. Hamahiru izanen dira guztira, denak Etxarri Aranazkoak. Txinerratxo protagonista izanen da, eta Olibi Galzihoan.

"OSO EZAUGARRI BEREZIA DAUKA: NOKETAN ETA TOKETAN IDATZI DUT, ZABALTZEKO"

parisorok antzeztuko du (ikastolako irakasle ohia), Joseba Andoni Beltza (bertsolaria), Fausti Razkin (udaletzeko langilea), Mari Cruz Mundiñano eta Marian Mundiñano (ahizpak), Josetxo Artieda, Jose Luis Maiza (abesbatzakoa), Xabi Gartzandia (abesbatzakoa), Onintza eta Iratitz Goñi (anai-arrebak), Mikel Nazabal, Jasone Mendioia, eta Nagore Erdozia.

Zein dira antzeztuko dituzten pertsonaia?

Berrenarren herriko bizilagunak izanen dira denak. Dena den, lehenago aipatutako eraso ondorioz, Balkorri eta Araña herriak despopulatuak izan ziren. Beren herriak uztera behartuak izan ziren herritarrak, Aranatzera etorri ziren eta hor egoera berezi bat sortuko da. Erabaki bat hartuko dute batzarraren, baina erdian tragedia bat gertatuko da, hamahiru aktoreek hau dena antzeztuko dute. Gauza gehiago gertatuko dira, gaur egungo egoerak ulertzen lagunduko digutenak, baina ezin da dena kontatu, horretarako antzerkia ikustera etorri behar da.

Eszenografia berezia prestatu duzue?

Eszena-toki sinplea prestatu dugu, argiekin asko jolastuko dugu taula gaineke ikusgarriago egin dadin. Jantziak, berriez, orain dela bost urteko obrakoak baliatu ditugu. Apeza ere izanen dugu obran. Batzarrak egiten diren unean, aulkiak jarriko ditugu, baina dena den, hari pantailan egonen da. Erdetik goiko aldera jarriko ditugu pantailak.

Ezaugarri asko biltzen ditu antzezlan honek?

Ba, bai. Antzerki historiko baten aurrean gaude, etnografia lan handia egin dugu, garai hartako bizimodua ezagutzeko aukera ematen du, hitanoa lantzeko beta ere ematen du, memoria, hizkuntza, ingurumena. Gauza asko nahasten dira.

Entsegu asko egin al dituzue?

Astean bitan elkartu gara. 20:00etan elkartzen ginen kultur etxean, herenegun azken entsegu egin genuen.

Noiz taularatuko da emankizuna?

Gaur bertan izanen da estreinaldia, 22:00etan, eta igandean beste saio bat emanen dugu, 18:00etan. Etxarri Aranazko kultur etxean izanen dira biak. Ordu bateko iraupena izanen du antzerkiak.

Elkartasun lurrikara Mexikorantz

Mexikorekin elkartasun jaialdia izanen da Lakuntzako Kultur Etxean larunbatean, 18:30ean. Han bizi den lakuntzar batek antolatu du eta lortutako dirua lurrikarak kaltetutakoendako izanen da

Larraitz Amadoz Lazkano LAKUNZA Pakita Andueza Ezkurdia, Lakuntzan jaioa da, irribarrea beti soinean darama, eta baikortasuna lau haizetara zabaltzen duen emakumea da. Hogeita hamar urte baino gehiago daramatza Mexikon. Lakuntzara etorri da hilabete osoko egonaldia batera, senide eta lagunak bisitatzeraz etortzen da bi urtetik behin. Ofizioz ile-apaintzaile izan da, eta antropologia ikasketak egin ditu, aproposa beraz Pakitak aukeratutako bizitokia, hango ondarea kontaezina da.

Mexikoko lasaitasuna hautsi zuen lehen lurrikara, irailaren 8an izan zen, 50 milioi mexika-



Pakita Andueza Ezkurdia. LARRAITZ

rrek nabaritu zuten Richter eskalan 8,2ko maila hartu zuen mugimendua. Chiapasen, sismoaren epizentroan, larrialdi egoera ezarri zuten. Bigarren mugitu zen lurra aste batzuk beranduago, "lurrikara indartsu batek Mexiko astindu du eta 225 lagun hil dira" halaxe zioen irailaren 19ko lerroburuak. Andueza lakuntzara lurrikararen uanean, merkatutik zetorren, barazkiak erostera hara joan zen. "Hondamendi izugarria izan zen egun hartakoa, jende asko etxe gabe, arroparik gabe gelditu da, oso une gogorrek bizi izan dira" honela gogoratzen du Pakitak egun hura eta ondorengo

asteak. Anduezak konpromiso handia dauka Mexikoko gizar-tearekiko, elkartasun handia, eta batez ere laguntza amaiezi-na eskaintzen dute bertako komunitatean, Martes de Tepito izenekoan.

Azkeneko gertaerak eta gero, Pakitaren komunitatea antolatzen hasi da, laguntza bereziki, Chiapas eta Oaxacako herrietara bidaltzeko, laguntzaren behar handia dute, eta ezinbesteko baliabide batzuk jasotzeko aukera ahalbidetu nahi dute. Chiapas, Oaxaca eta San Caralampio, komunitate Zapatistako egoeraren berri izan dute Pakitaren elkartasun komunitatean, eta etxeak eraikitzeko materiala, arropa, janaria behar dituzte.

Jaialdia

Elkartasunaren balorea oso garrantzitsua da Anduezarendako, "mundura laguntzeko etorri gara, jendearen artean gauza onak banatu behar dira" halaxe diote bere hitzek. Lakuntzako bidaia probestuz, azken asteotan ideia bati tiraka ibili da. Mexikoko lurrikarak eragindako ondorio horietan laguntza eskain-

tzeko prest agertu da, eta Lakuntzako herria, babes horretan partaide sentiarazi nahi du.

Larunbatean, jarduera desberdinak uztartuko ditu Kultur Etxean. Poesia irakurriko du, Andueza, idazlea baita. Musika gozatzeko aukera izanen da baita ere, herriko musikarien parte hartzearekin. Egoeraren berri emanen du, baina drametatik at utzi nahi du bere solasaldia.

Mexikoko lagunak oparitutako liburuak saldu egingen ditu bertan eta, bestalde, Chiapas eta Oaxaca komunitateetako argazkiekin osatutako erakusketa bat ikusteko aukera egonen da. Argazki horietan gainera, oso irudi bereziak antzeman daitezke, izan ere, Pakitak duela sei urte lakuntzar batek erositako larrua josteko makina bat lortu zuen. San Caralampio, komunitate Zapatistako biztanleek sekulako lorpena izan zuten josteko tresna horren bidez, haien jantziak, baliabideak, eta ekoizpen ugari makina horrekin egiten baituzte eta komunitatekoek lakuntzarrei haien esker ona erakutsi nahi diete erakusketaren bidez.

Osorik: www.guaixe.eus.

ABENDUAK 9 DENAK PARISERAT!

ATXIKIMENDUAK

"BAKEAREN ARTISAUEK" 2017ko apirilaren 8ko armagabetez egunaren arrakastaren ondotik, datorren abenduaren 9an, Parisen mobilizazio bat antolatzea erabaki dute, lehen urrats gisa euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko neurrien bertan behera uztea aldarrikatuz, ondokoa eskuratzeko helburuarekin:

- PSP (Partikularki Seinalaturiko Presoa, frantsesez DPS) estatutuaren aplikazioaren amaiera
- Hurbilketa eta elkarretaratzea
- Gaixorik dauden presoan askatzea
- Baldintzapeko askatasuna

Urgentziako neurri horiek presoan gaiaren behin betiko konponbidearen baitan kokatzen dira eta hamarkadetan bizi izan dugun gatazkaren ondorioen konponbidean urrats garrantzitsua dela uste dugu.

Helburu horiek lortzea posible da; abenduaren 9ko mobilizazioa zenbat eta masiboagoa izan, orduan eta eskuragarriagoa izango da helburua. BAGOAZek, SAREK eta ETXERATEk bat egiten dugu bakegileen deialdiarekin. Argi eta garbi diogu gainera, apirilaren 8an bezala, gizarte zibilak mobilizazio horren eragile eta motore izan behar duela.

Eta bide batez gogoratu nahi dugu gaur egun bi sakandar, Oihan Barandalla eta Jon Gurutz Maiza estatu frantziarrek karteletan dituztela eta goian aipatutako eskubide urraketa horiek zuzenean eragiten dietela bie.

ETAren armagabetearen urte berdinean, argi daukagu gizarte izan behar dela presoan gaiaren konponbiderako protagonista nagusia. Estatuaren jarrera immobilista ikusita parte aktibo izan behar dugu haien jarrera aldatu ahal izateko. Eta herri bezala, aurrera egin nahi duen jendarte bezala, estatu frantses eta espainiarri azaldu behar diegu, gure ideologia anitzen gainetik hamarkadetan iraun duen, eta oraindik orain itxi gabe dagoen, gatazkaren konponbiderako urratsak emateko prest gaudela.

SAKANA MAILAKO AURKEZPENA

AZAROAK 18 LARUNBATA

12:00etan

ETXARRIKO KULTUR ETXEAN



Alkateak:

- Patxi Bengoetxea (Ziordiko alkatea)
- Mikel Azkargorta (Olaztiko alkatea)
- David Oroz (Urdiango alkatea eta Mank.eko lehendakaria)
- Bitoriano Gabilondo (Iturmendiko alkatea)
- Egoitz Urriza (Bakaikuko alkatea)
- Eneka Maiz (Etxarri Aranazko alkatea)
- Karmele Maraño (Arbizuko alkatea)
- Patxi Xabier Razkin (Lakuntzako alkatea)
- Ainar Aiestaran (Uharteko Arakilgo alkatea)
- Juan Ángel Beraza (Irañetako alkatea)
- Aitor Larraza (Irurtzungo alkatea)
- Mari Paz Gonzalez (Arakilgo alkatea)
- Joseba Imaz (Ergoienako alkatea)

Sindikatuak:

ELA, LAB, EHNE

Alderdiak:

Sakanako Sortu, Eusko Alkartasuna, Sakanako EH Bildu

Eragileak:

Sakanako Ernai, Etxerat, EHE, Bilgune Feminista, AHT Gelditu Elkarlana, Askapena, Mirentxin.

Norbanakoak:

1. Enrike Zelaia (musikaria)
2. Pello Reparaz (musikaria)
3. Fran Urias (musikaria)
4. Xabier Aldaz (musikaria)
5. Castillo Suarez (idazlea)
6. Maider Ansa (abeslaria)
7. Anabel Arraiza (aktorea)
8. Ion Arretxe (idazlea)
9. Alfredo Alvaro (kazetaria)
10. Joseba Garmendia (Unibertsitateko irakaslea)
11. Asier Beltza (editorea)
12. Ainhoa Juaniz (artista)
13. Koldo Barandalla (Frantziar preso dagoen Oihan Barandallaren senidea)
14. Koldo Arnanz (margolaria)

DENAK GARA
BAKEGILEAK

ORAIN
PRESOAK

AUTOBUSAK HERRI GUZTIETAN IZENA EMANI!

Emakumezko modaren bilakaera Iortian ikusgai

Erakusketaren bisita ordutegia: astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara

ALTSASU

Altsasuko Iortia kultur guneak Emakume modaren 100 urte erakusketa hartzen du gaurtik abenduaren 3ra arte. Erakusketan bisitatzen duenak emakumezkoen janzkerak 1880tik 1980ra bitartean izan duen bilakaera ezagutzeko aukera izanen du. Hau da, industrializazio hasieratik, Belle Epoquetik pasaz eta lehen berdintasun zantzuak sumatzen ziren garaiak arte. Erakusketan islatuak geldituko dira garaian garaiko gizarte, kulturala, moda edo hedabideen presioak eragindako aldaketak. Esaterako, emakumezkoak pixkanaka etxetik kanpo lan egiten hasten direla ikusteko aukera izanen da janzkeraren bidez.

Neurrira egindako 22 maniketan jarritako izanen dira ikusgai jantziak. Eta haiekin garai bakoitzari dagokion moda osaga-



Aurreneko egunetik izan dira bisitariak.

rriak ere izanen dira ikusgai: argazki makinak, telefonoa, irratia, disko-jogailua, irrati-kasetak, telebista eta abar. Erakusketak garai bakoitzaren ezaguerriak azaltzen dituen 10 karatelez eta 50 argazkiz osatuta dago.



BAZTERRETIK

OLATZ ALDASORO

Kontakt Inprobisazioa

Azken urteetan, Kontakt Inprobisazioa arrakasta handia izaten ari da. Euskal Herriko Kontakt Inprobisazio Elkarteak ekimen ugari antolatzen ditu eta gero eta jende gehiagori sartzen ari zaio dantza hau praktikatzeko arra. Batzuek, moda bat besterik ez dela esaten dute, baina arrakasta ulertzeko arrazoiak modaz haratago doazela uste dut.

70. hamarkadaren hasieran AEBn sortua, dantza ereduaren inguruan hausnarketa sakona egiten du orduko beste dantza estiloen oinarriak kolokan jarritz: gorputzarekiko erlazioa, hezkuntza sistema, maskulinitatea eta feminitatea, sexualitatea, identitatea eta jerarkia.

Kontakt Inprobisazioa Steve Paxtonek egindako ikerketen ondorioz sortu zen. Dantzari

honen ibilbide eta oinarria, gimnasia olinpikoa, aikidoa eta dantza modernoa izan ziren eta bere ikerketen helburua inprobisazioak zuen eragina aztertzea zen, gorputzen arteko harremanean. Gainera, talde batean berdintasuneko parte-hartzea nola sustatu aztertu nahi zuen, jerarkiarik gabeko talde erlazioa, alegia.

Ez zitzaion ikasleek kopiatzen duten irakasle eredu gustoko, e! Egunerokotasunean sortutako mugimenduak ikusmira sortarazten zioten, ibiltzearen ekintza adibidez, edo hemen eta orain egotearena. Honekin zera frogatu nahi zuen: dantza, bere beretik sortu zitekeela eta edozein gorputzek dantza egiteko gaitasuna duela. Honekin batera, dantza munduan emakume eta

gizonen arteko rolen berdintasuna bilatzen zuen.

“Epairik gabeko dantza” bezala ezagutzeak eta dantzarien maila edo eskarmentuak garrantzirik ez izateak, “dantza sozialaren” izaera indartu zuen eta begirada akademizistatik urruntzen zenez, edozein motatako gorputzak onartuak ziren; edozein izan zitekeen “kontaktero/a”, adinak, altuerak, pisuak, etniak edota urritasun fisikoek ez zuten garrantzirik. Gorputz mota desberdinen aniztasunak, kontraste handia sortzen zuen beste dantza estiloetako dantzarien berdintasunarekin, non edertasun eta gorputz egitura eredu zehatzak gailentzen ziren.

Kontakt Inprobisazioaren ereduak bi dantzarien arteko elkarrizketa intimo eta benetazkoa datza; gorputzen interazioaren bidez, fisika mekanikoaren legeak erabiliz eta lankidetzara, jolasa, hezkuntza, kirola, sexua eta maitasunean oinarrituz.

Osorik: www.guaixe.eus



Hijos de Goikoetxea

948 467 317 • 696 979 279 • Geltoki auzoa 11 • ALTSASU
Hijosdegoikoetxea@yahoo.es








**Gogoratu, Katealde artisau produktuak eta klarisa mojen turroiak ditugula. Cava, champagne eta ardoetan merkatuan dagoen hoberena aurkituko duzu.*

*Aurtengo eskaintza:
 Kalitate handiko produktuekin zure gabonetako opariak, loteak edo saskiak zuk zeuk egitea. Zatoz gure ardotegia ezagutzera!*



Laida Aldaz Arrieta, Zinetika jaialdiko antolatzaile etxarriarra. UTZITAKOA

Mugimenduaren harremanak ikertuz

Zinetika bideo eta dantza festibala bi arteen arteko harremanak ikertzen ditu. Asteazkenean eta ostegunean Iruñean ospatuko da, Filmotekan eta Kondestable jauregian, eta ostiral eta larunbatean Donostian, tabakalera

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI

Fisika eta kimikaren arloan zinetika gorputzen mugimenduak ikertzen dituen dinamikaren legea da. Zinetika bideo eta dantza jaialdiak ere mugimenduak ikertzen ditu, baina dantza eta zinemaren artean sortzen diren mugimenduaren harremanak ikertzen ditu. Azaroaren 22tik 25era, heldu den ostegunetik

larunbatera, ospatuko da Zinetika jaialdia Iruñean eta Donostian. Laida Aldaz diziplina antzeko artista etxarriarra da zuzendaria.

Kamera eta dantzaren arteko harremanak ikertzen duen jaialdia da Zinetika, Laida Aldaz festibalaren zuzendari etxarriarraren hitzetan. Jaialdian "hainbat" film labur aurkeztuko dira;

eta "pelikula hauen lengoia dantza da". Zinetika jaialdiaren helburuak bi dira: sorkuntza forma desberdinetan jendearen ikusmira potentziatu eta dantza garaikidearekiko ikusmira sortzea. "Askotan antzokiak ez dira betetzen, eta filmen bitartez jendea dantza saioetara animatzera lagundu nahi dugu". Prozesu sortzaile desberdinak aurkezte-

ko aukera bat badela ere azaldu du Aldazek.

Uztartzea

Dantza eta zinea arteen arteko harremanean forma asko aurkezten direla azaldu du Aldazek. "Guk ez duguna nahi da dantza filmatzea. Hau da, koreografia bat grabatzea. Beharrezkoa da dantza horretan kamerak zerbait esatea, harremana bat izatea". Betiere, produktu finala autore edo zuzendariaren esku dago. Argudio narratiboak izan daitezke, edo abstraktuagoak izan.

Edozein dantza estilo, edozein dantza teknika. Baldintza garrantzitsuena kamara eta dantzaren arteko harreman beharrezko bat izatea da: "kamara eta gorputzaren artean harremana izatea eta hori sakontzea". Jaialdian parte hartzeko filmek hamabost minutu baino gutxiago izan behar zuten.

130 film baino gehiago aurkeztu dira Zinetika jaialdiko lehiaketara aurten, 29 herrialdeetatik. Hainbat saio edo tarte ditu jaialdiak. Lehiaketara aurkeztutako filmetatik sail ofizialerako bost aukeratu dituzte. Open Screen sailean txapelketaren barne ez dauden filmak proiektatuko dituzte, "iruditzen zaigulako jaialdian parte hartzeko beharrezkoak direla". Azkenik, Zinetika programan beste bost film labur ikusiko dira, jaialditik kanpo, baina proiektatzeko aukeratuak izan direnak.

Kamera eta dantzaren arteko harreman horretan sakontzeko bi ekimen prestatu dituzte Zinetika jaialditik: tailer bat eta masterclass bat. Tailerra kamera eta gorputzaren arteko harremanean sakontzeko izango da eta Sra Polaroiak emanen du. Oscar Alegria zuzendariak

Pelikula bat eta hiru plano masterclassa emanen du. "Hainbat zuzendari etorriko dira ere eta haiekin hitz egiteko aukera egongo da".

Bi hiri elkartzuz

"Kanpoan bizi naiz eta hemen Nafarroan zerbait gehiago egin nahi nuen jendea dantzan motibatuzko. Nik hainbat bideo-dantza eginak nituen, eta ideia polita iruditu zitzaidan". Zinetika bigarren edizioa izanen da aurtengoa. Joan den urtean ospatu zuten lehenengoa eta "oso ongi" egon zela aitortu du Aldazek. "Sofia Alforja Dantzaguneako arduraduna etorri zen, eta hainbeste gustatu zitzaion, Donostian ospatzeko proposatu zigun". Hortaz, aurten Donostiara salto egin du festibalak. Bi hirietako programazioa antzekoa izanen da.

Azaroaren 22an eta 23an, asteazkenean eta ostegunean, Iruñean hasiko da Zinetika festibala. Ostiralean, azaroaren 24an, Donostiara joanen da, 24an bukatzeko. Filmetako proiektzioak Nafarroako Filmotekan izanen dira, Iruñean; sarrerak eskuratzeko bertako sarreran erosi daitezke. Donostian Tabakalerako zineman izanen dira proiektzioak. Tailerra eta masterclass-a Iruñeko Kondestable Jauregian eta Donostian Tabakalera egingo dira. Doan dira baina izena eman behar da festibaleko webgunean: www.zinetikafestival.com/eu

"FILMEEN BITARTEZ JENDEA DANTZA SAIOETARA ANIMATZERA LAGUNDU NAHI DUGU"

Kirmen Uribe literatur solasaldira etorriko da

Sakanako sei liburutegik antolatu dute. Gaur, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da

SAKANA

Irakurzaletasuna eta kultura sustatzeko ekintzak antolatzea helburua hartu dute. Eta, horregatik, elkarlanean hasi dira Arbizuko, Etxarri Aranazko, Urdaingo, Altsasuko, Olatzagu-

tiko eta Ziordiko liburutegiak. Eta hala segitzeko asmoa dute. Elkarlan hori mustutzeko sei liburutegiek Kirmen Uribe idazlearekin literatur-solasaldia antolatu dute gaurko. Beraz, Iortia kultur gunetik pasatzen diren

literatura zaleek ondarrutarraren obra egileak berak azalduta ezagutzeko aukera izanen dute. Badira aste batzuk sei liburutegiek Uriberen obra ezagutarazteko irakurketa gida sortu zutela eta banatu egin dutena.

Uribek *Elkarrekin esnatzeko ordua* (2016ko kritika saria) bere azken eleberria aurkeztuko du. Hain zuzen, liburu hau bera izan da irakurle taldeetan irakurri dena, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Sarrera doakoa da, eta areto bete arte sartu daiteke.



Kirmen Uribe idazlearekin bere azken eleberriaz hizketatzeko aukera izanen da.



1946an institutuan ikasle izandakoak. ERKUDEN

“Elkartzeko ilusioa geneukan”

1964an institutuan ikasten hasi ziren 40 bat gizon elkartu ziren larunbatean. Hasi zirenetik 50 urte baino gehiago pasa dira. Gertatutakoak gogoratzen egon ziren. Jose Tomas Sanzberrok antolatu zuen topaketa Martin Mazkieran olaztiarraren laguntzarekin.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer ikasten zenuten Altsasuko institutuan?

Lan-Batxilergoa deitzen zena. Hamar irakasgai genituen, eta tailerra. Denetarik ikasten genuen: zientziak, matematikak eta letrak; baita mekanika, zura eta elektrozitatea. Hiru hilabete bakoitza.

Bazen Oinarrizko Batxilergoa ere. Guk egin genuen laborala.

2 Zenbat urtez ikasi zenuten?

Ni lau urtez bakarrik egon nintzen, baina zazpi urte egon zirenak badaude. Ondoren urte bat etxean pasa nuen eta Salesianotan ikasi nuen. Beste batzuek karrerak egin zituzten: medikuntza, ingeniari...

3 Zenbat urterekin etorri zinen?

1964ko lastailaren 13an etorri nintzen eta hamaika urte nituen. Gehienak hamaika eta hamahiru urterekin etortzen ginen.

4 ArizkUNETIK etortzen zinen. Ota-diko Kristo Deuna aterpean barneko ikaslea zeunden, beraz.

Bai. Orain ikusten ditut hamar urteko mutikoak eta pentsatzen dut niri hamar urterekin beste herri batera bidali nindutela, sakrilegio handia izan zela. Hiru hilero etxera itzultzen ginen. Leku askotatik etorritako jendea elkartzen ginen ostatuan.

5 Zergatik ikasten zenuten institutu honetan?

Nire ustez ama gaizki orientatu zuten. Pentsatzen zuen hemendik ogibide batekin aterako nintzela, baina ez zen horrela. Batxilergoa ikasi ondoren zerbait gehiago ikasi behar zen. Maisua etxera joaten zen eta esaten zien

semeak ikasteko gaitasuna zuela eta hobe zuela batxilergoa egiten bazuen. Nik uste nirekin okertu zirela, niri ez zitzaidan ikastea gustatzen.

6 Nolako zen zuen bizitza?

Ona. Hemengo mutikoekin ongi moldatzen ginen. Haurrak ginen eta hasereren bat egoten zen, baina, oro-har, hitz egiten genuen eta harremana ona geneukan. Altsasurikiko harreman oso ona mantentzen dut. Oroitzapen asko ditut. Egunkarian beti herriko zerbait ikusten dudanean irakurtzen dut eta norbait ezagutzen dudana begiratzen dut. Oso berezia da niretako. Gelan 50 bat pertsona geunden.

7 Nolakoak ziren irakasleak?

Denetarik zegoen, baina Francoren diktaduran geunden, eta nabaritzen zen. Batzuk liberaleak ziren, baina beldurraga-

tik ez zuten asko esaten. Cara al Sol abestu behar genuen. Baina gu haurrak ginen, ez genekien Franco nor zen ere. Esaten zigutena ez genuen ulertzen.

8 50 urte pasa dira hemen ikasi zirenetik. Harremana mantendu duzue?

Batzuk ikastera elkarrekin joan ziren eta kontaktuan jarraitzen zuten. Beste batzuk ez. Ferietara etorri nintzen eta Martin Mazkieranekin elkartu nintzen. Bera ote zen ziurtatzeko begiratzen egon nintzen eta azkenean gerturatu nintzen. Hitz egiten hasi ginen eta harremana berreskuratu genuen. Gero Ugarte anaiekin elkartu ginen, Antxonakoak.

9 Eta topaketa hau antolatzea erabaki zenuten?

Nik ilusio hori neukan. Eta Mazkieran esan nion. Haiek esan zidaten ilusio berdina zutela. Eta jendearekin kontaktatzen nuen bitartean, ilusioa zutela esaten zidaten. Telefonoz kontaktatu dut, ikusten banuen norbaiten senide bat hil zela tanatoriora joan naiz, lagunaren anaiaren etxera deituz haren telefonoa galdetzeko... Ilusi handia nuen. Sei elkartzen baginen, sei. Zortzi, bada zortzi.

10 Hurrengo urteetan antolatzea pentsatu duzue?

Bai. Whatsapp bidez komunikatzen gara, eta behin kontaktatu dudala nik uste jarraituko dugula topaketa hau egiten.

11 Zenbat pertsona elkartu zarete?

Ehun bat pertsonen kontaktua lortu dugu, eta 45 elkartu gara.

GK
 kartelak
 eskuorriak
 pegatinak
 publizitatea
 kamisetak
 aldizkariak
 bulegoko materiala
gk@gkomunikazioa.eus

GK
 KOMUNIKAZIOA